

Kultura

'Guernica 1913' antzezlana taularatuko du Banartek
Durangoko San Agustin kulturgunean, bihar > 9



San Blas
jaiak 2014

Aita Zavalaren lanaren lekukoa hartu guran, elkarteak sortu dute

Vicente Zabala zenaren izenagaz elkarteak sortu dute hainbat durangarrek, tartean, Jose Luis Gallastegik eta Jabier Sagastizabalek. 'www.asociacionvicentezavala.com' webgunea sortu dute, eta, horrez gainera, hainbat ekimen ipini gura dituzte martxan > 5



Kepa Aginako

Trafikoa da aire kutsadura iturri nagusia Durangaldean > 3

Azterlanek Durangaldeko aire kalitatearen azterketaren emaitzak jakinarazi ditu. Oskar Zarrabaitia Amankomunazgoko presidentearen arabera, airearen kalitatea ona da. Durangaldean trafikoa da aireko kutsadura iturri nagusia. Industriak sortutako kutsadurak, berriz, behera egin du. Egurrak eta gasolinagaz funtzionatzen duten galdarak beste kutsadura iturri garrantzitsu bat dira; baita AHT, AP-8 eta Lebarioko obrek bota dituzten partikula kutsagarriak ere.



KOART

Sukaldeak - Bainugelak - Horma-armairuak

Fabrikatzaileak gara eta espazio bakoitzaren neurrirako irtenbideak topatzen ditugu

Eitua Ind., 9 - 6. behe - BERRIZ - Tel. / Faxe: 946 826 879

Durango > 2

50 enpresak parte hartuko dute asteburuan Berdeago azokan

Mallabia > 4

Lanaldi murrizketagatik langile baten kaleratzea salatu du CC00k

Atxondo > 7

Autobus geltoki berria eraikitzeko lanei ekin die udalak

Elorrio > 4

Eztabaida sortu da kiroldegiko prezio eta hobarien harira

Herririk herri

> DURANGO

Ingurumena ardatz, martxan dago Berdeago azoka

Mondragon Unibertsitateko bost ikaslek antolatuta dute domekara arte egingo den Berdeago azoka

> MARKEK ONAINDIA

Gaurtik domekara bitartean Ingurumen Iraunkortasunaren Euskal Azoka egingo da Landako Gunean. Berdeago izenagaz ezagunago, ia sortu zuten ekimen hau Mondragon Unibertsitateko bost ikaslek, eta aurtengo bigarren edizioagaz sendotzeko bidean dator. Egitarau luzea prestatu dute, ingurumena ardatz hartuta. Alde batek, arloagaz zerikusia daukaten enpresek euren produktu edo zerbitzuak erakutsiko dituzte, eta, bestetik, berbaldiak eta tailerrak egongo dira. 10.000 bisitari edukitzera ailegatu gura dute antolatzaileek.

Gaur eguerdiko 12:00etan zabaldu dute azoka. Inaugura-

50 enpresak parte hartuko dute azokan, ia egondakoen aldean heren bat gehiago

zioan Iñigo Urkullu lehendakaria egongo zela iragarri zuten antolatzaileek martitzenean, ekimena aurkezteko prentsaurrekoan. Aitziber Irigoras alkatearen laguntzagaz eman zuten informazioa Berdeago azokaren bultzatzaile Matxalen Palaciok eta Iñigo Peñak. Palaciok azaldu zuen aurten 50 enpresak parte hartuko dutela azokan, ia egondakoen aldean heren bat gehiago. “Horietatik ugari Durangokoak dira, eta hori oso garrantzitsua da”. Enpresa kopuruaren igoerak ekimenarekiko konfiantza erakusten du Palacioren ustez. Bertan egongo dira ikusgai, adibidez, energia aurrezteko galdarak edota ibilgailu elektrikoak.

Fakturak ulertzen ikasi

Zortzi berbaldi eta zazpi tailer prestatu dituzte hainbat gairen inguruan. Iñigo Peñak adierazi zuen interes handia piztu duela argiaren fakturak ulertzen ikasteko tailerrak. Kontsumitzaileak zer eta zelan ordaintzen



Iazko edizioa izan zen lehenengoa. Aurten 10.000 lagun batu gura dituzte Berdeago azokan.

duen erakutsi gura dute, eta horretarako aditu bat ekarriko dute Madriletik. Berbaldien artean, kutsadurak pertsonarengan sortzen dituen ondorioak, energia berriztagarriak eta etxeetan obrak egiteko urratsak daude, besteak beste. Domekan, 17:45ean, zaborra batzeko sistemak izango dituzte hizpide. Aditu bik eztabaidagai izango dituzte hondakinen atez ateko bilketa sistema eta bosgarren kontainerren bidezko bilketa eredua.

Bestalde, auto eta bizikleta elektrikoak probatzeko aukera

ere emango dute Berdeago azokaren harira.

Durango, “epizentro”

“Udalaren ikuspegitik pozarren hartzen dugu ekimen hau”. Aitziber Irigoras alkatearen berbak dira. Bere iritziz, Durangoko hainbat eragilek eta merkatarik parte hartzea oso garrantzitsua da, eta ekimenak frogatzen du gazteak ingurumenaren aldeko esparruan lanean dabilazala. Asteburu honetan “Durango mugimendu berde baten epizentro bihurtzea” gurako luke Aitziber Irigorasek.

Udal aurrekontuari alegazioak egin dizkiote

Aurtengo aurrekontuan hainbat datu ekonomiko falta direla argudiatu dute, alegazioak aurkezteko

> M.O.

Bildu eta Aralarrek babestutako lau herritarrek udal aurrekontuari alegazioak egin dizkiote, eta datorren martitzeneko udalbatzarrean eztabaidatuko dituzte kargudunek. EAJk eta PSE-EEK behin-behinean onartutako aurrekontu proposamenaren aurka egiteko, txostenean hainbat datu ekonomiko falta direla argudiatu dute, eta horretatik legearen kontrakoa dela.

Datu falta hiru arlotan dagoela azaldu dute alegazioen sortzaileek. Lehenik, sarrera eta gastuen arteko orekagaz zalan-tza agertu dute. Zerga eta tasa bidezko sarrerak igo egingo direla esaten du udalaren aurreikuspenak, baina euren ustez ez da zehazten zelan gertatuko den hori. Gainera, azken urteetan sarrerak bajatu egin direla aipatu dute, antzeko egoera eko-

nomikoan egonda. “Sarrerak justifikatu barik puzteko topatzen dugun arrazoi bakarra da gastuekin bat egiteko egin dela”.

Bigarren arrazoa da, ustez, udalak daukan zorra ez dela islatzen. 2010eko aurrekontuan BBKtik jasotako 3 milioitik gorako mailegu bat sartu zuen, eta zor hori ez ei dator aurtengoan.

Hirugarren alegazioa lurra eta etxebizitzagaz lotutakoa da. Lurzoruaren legearen arabera, udalak lurrengatik jasotzen duenaren %10 zertarako erabiliko duen zehaztu behar du, eta lehentasuna eman etxebizitza publikoak sortzeari. Alegazioen egileek diotenez, aurrekontuan ez dituzte irizpide bi horiek bete. Kritikatu dute ez direla agertzen Etxezurioste, Forjanor eta Faus-tegoienako etxe proiektuengatik jasotako diruak; 2, 1,5 eta 3,5 milioi euro, hurrenez hurren.

Maristak ikastetxeko ikasleek jendaurrera ateratu dute euren lana

ElkarIkertzen jardunaldia egin zuten barikuan

> M.O.

ElkarIkertzen izeneko jardunaldia izan zuten joan zen barikuan Maristak ikastetxean. Iazko ikasturtean egin zutena jendaurrean erakustea zen helburua. Besteak beste, Mekanikako ikasle batzuek EHUko ingeniari talde bati lagundu, eta formulako automobil baten suspentsioak egin zituzten ia. Aurten ere asmo bera daukate, eta prozesu

hori zelan egiten den erakutsi zuten barikuan.

Mekanikako lanaz gainera, Elektronikako ibilgailu bat automatizatu zuten, Administrazioako jardunaldia zelan antolatu erakutsi zuten, eta Batxilergoko ingurumena izan zuten aztergai. Informatikako webgune bat landu zuten, eta Jon Feijoo ikasleak prentsarako jarraipena egin zuten.



Formulako automobila ikusgai egon zen joan zen barikuan.

‘Topaldia’, euskara erabiltzeko motibazioez

> M.O.

Euskaltzaleen Topaguneak Topaldia izeneko jardunaldia antolatu du datorren egunerako, urtarrilaren 30erako. Urteroko ekimena da hori, eta aurten hamaikagarren edizioa ospatuko dute. Euskara erabiltzera eta ez erabiltzera erosten duten motibazioak zeintzuk diren aztertuko dituztela azaldu dute. Horretarako, soziolinguistika arloan aditu diren zenbait lagunek parte hartuko dute. Besteak beste, Iñaki Martínez de Luna, Julen Arexolaleiba eta Jon Sarasua egongo dira hizlarien artean.

Goizeko 09:00etan ekingo diote jardunaldiari eta 18:00ak arte irautea aurreikusita dute antolatzaileek. Tartean Plateruenean bazkalduko dute. Jardunaldian izen-emateko urtarrilaren 26a ipini dute epemuga, eta www.topaldia.topagunea.org webgurena jo behar da.

> DURANGALDEA

Trafikoa da aireko kutsadura iturri nagusia, industriakoa jaitsi ostean

Durangaldeko airearen kalitatea ona dela esan du Oskar Zarrabeitiak

> MARKEL ONAINDIA

Durangaldean asko dira industria arloko enpresak. Jarduera ekonomiko indartsua ekarri dute, baina alde negatiboari begiratuta, kutsadura handia ere bai. Ingurumenean eragindako kalteez gainera, gas isuriek kezka sortu izan dute herritarrengan, arnasten dugun airea osasunerako kaltegarri izan daitekeelakoan. 2006an egindako neurketa baten ostean, herritarren artean "alarma piztu" zela aitortu du Ander Areitourtena Azterlaneko teknikariak. Urteotan egindako ikerketen eta hartutako neurrien ondorioz, industriak sortutako kutsadura maila jaitsi egin dela jakinarazi dute Areitourtenak eta Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek. Egun, trafikoa da airean kutsadura gehien eragiten duen faktorea.

"Airearen kalitatea ona da". Garbi adierazi du Zarrabeitiak.

Bere ustez, lanak hobetu du egoera. Besteak beste, enpresei kutsadura jaisteko neurriak eskatu dizkiete, eta horretarako laguntza eman diete. Legezko indizeen arabera onargarria da hemengo kutsadura maila.

Trafikoaren azterketa

Areitourtenak azaldu du Durangoko Udala hasi zela airea aztertzen, baina Durangora inguruko isuriak heltzen zirela ikusita, eskualdeko azterketa egiten hasi ziren 2009an Amankomunazgoaren eskutik. 2013an lanagaz jarraitu, eta ondorioztatu zuten trafikoa zegoela arazo. Ibilgailuen kopurua handia da, baina abiadura maila ere aztertu zuten, horren arabera gasolina kontsumoa aldatzen da-eta. Iurretako N-634 errepedean, adibidez, ibilgailuen %82k ez du abiadura muga errespetatzen -50 km/h-. Izurtzan ere, Bi-623 errepedean, muga bera gain-

ditzen du erabiltzaileen %62k. Berrizen, oster, Areitourtenak esan du %2ra murriztu dela tasa hori N-634an. Antza denez, biribilgune berriekin lortu da hori, eta horregatik, antzeko ekintzak jasoko dituen mugikortasun plan bat egitea beharrezko ikusten du Durangaldean.

Herritarrek erantzule

Trafikoaz aparte, egurragaz eta gasolinagaz funtzionatzen duten galdarak dira beste kutsadura iturri garrantzitsu bat. Amankomunazgoak inbentario bat egin zuen egoeraz jabetuta. Azken urteetan, AHT, AP-8 eta Lebarioko obrek ere partikula kutsagarri asko bota dituzte.

Areitourtenak nabarmendu du ingurumenaren egoeran herritarrek daukaten ardura: "Orain dela bost urte erraza zen industriari errua botatzea, baina herritarrok gara kutsadura iturri nagusi bien erantzuleak".



N-634 errepedeko trafikoa, lurretan.



Airearen kalitatearen inguruko emaitzak eman dituzte asteon.

Otsailaren 17an hasiko da erretzeari uzteko ikastaroa

Hamar bat batzarretan parte hartzea eskatzen dute; erretzaileei izena emateko deia egin diete

> M.O.

Amankomunazgoko Droga-mendekotasuneko Zerbitzuak tabakoa uzteko ikastaro berria antolatu du, eta erretzaileei izena emateko deia egin die. Urtean hainbat alditan eskaintzen du ikastaroa, eta hurrengo otsailaren 17an hasiko da.

Ikastaro berriaren izen-emateko bide bi eskaini dituzte antolatzaileek. Batetik, 946 200 520 telefonora deitzea, eta bestetik, prevencion.mdurango@bizkaia.org helbidera idaztea. Otsailaren 17an hasita, hamar bat batzarretan parte hartzea eskatzen dute, eta talde bitan banatuta garatuko dituzte batzarrok. Talde bakoitzean hamabost eta hogeit lagun artean egongo dira.

24k gaintu dute

Joan zen urria eta abendua bitartean 33 lagunek jaso zuten ikastaroa, eta horri eskerrak 24k mendekotasuna gaintzea lortu dute, Droga-mendekotasun Zerbitzuaren arabera. Par-taide guztiak uste zuten datozen sei hilabeteetan erretzeari utziko diotela. Ikastaroa amaitzean inkesta bat egin zuten, eta bertatik atera dituzte emaitzak.

33 lagunek jaso zuten ikastaroa, eta horri eskerrak 24k mendekotasuna gaintzea lortu dute

> ABADIÑO

Lehiaketa bidez aukeratuko dute Martxoak 8ko kartela

Otsailaren 20ra arte entregatu ahalko dira lanak

> I.E.

Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, bederatzigarren urtez zabaldu du Abadiñoko Udalak kartel lehiaketarako deialdia.

Epaimahaiak irabazle aukeratzen duen kartelak 480 euroko saria jasoko du, eta 120koa herriko onenak

Epaimahaiak aukeratzen duen kartelak 480 euroko lehenengo saria jasoko du, eta bere irudia erabiliko du Abadiñoko Udalak martxoaren 8rako antolaturiko ekimenak iragartzeko.

Saridun nagusiak ez ezik, herriko kartelik onenak ere izango du saririk: 120 euroko accesita jasoko du bigarren sarituak.

Lehiaketaren antolatzaileek eman dituzten baldintzen arabera, *Gure erabakia, martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna* esaldiak agertu behar du aurkezten dituzten karteletan.

Otsailaren 20ra arteko epea dute parte hartu gura dutenek. Lanak Errota kultur etxean zein Udal Mediatekan aurkeztu daitezke, edo hala nahiago dutenek, udaleko Berdintasun Arlo- ra bidali ditzakete postaz. Otsailaren 27an jakinaraziko dute zein den aukeraturiko lana, eta erakusketa antolatuko dute lan guztiekin, martxoan, Errotan.

Zapatuetan ipuin-kontalarien saioak izango dira Errotan

> I.E.

Urtarrileko zapatuetan ipuin-kontalarien saioak eskainiko ditu Abadiñoko Udalak.

Joan zen astean izan zen lehenengo saioa, Traña-Matienako Errota kultur etxean; Peru Magdalenaren ipuinak izan ziren entzungai. Bigarren hitzordua bihar izango da: Egoitz Etxeberriak lau eta zortzi urte arteko umeei zuzenduriko saioa eskainiko du.

Bigarren hitzordua bihar da: Egoitz Etxeberriak jardungo du lau eta zortzi urte arteko umeei zuzenduriko saioan

A. Urreta podóloga

Almara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10, behe - 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 214/06

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
HURRENGO ERAIKUNTZA

Bixente Kapanaga, 19 behe - 946 816 673 - lurreta
www.zarateyelexpe.com

hitz
liburudenda

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

> ELORRIO

Eztabaida sortu da kiroldegiko prezio eta hobarien harira

Joseba Mujika alkateordearen ustez, Bilduk apropos bilatu du eztabaida



Kiroldegian 1.217 bazkide daude izena emanda une honetan.

> MARKEL ONAINDIA

Kiroldegiko prezio eta hobariak zeresana ematen jarraitzen dute. Bilduk kritika gogorra egin dio EAJren gobernu taldeari; prezioen igoerak onartezinak direla adierazi dio, eta hobarietan legez kanpoko aldaketa egin dutela ere bai. Koalizioak argitara atera du herriko kirol elkarteei deskontua eskaini zaiela, eta, ostean, hainbat herritarrek elkarteetan izena eman dutela, hobariak aprobetxatzeko. “Diru sarrera gutxiago izango dutela konturatu direnean, baldintzak gogortu dituzte”. Elkarteetako bazkideen erdiak eskatu behar du laguntza, edo bestela hogeiko taldeetan aurkeztu.

Edu de La Cruz Erdella mendi taldeko kidearen arabera, 60 lagunek eman dute izena. Udalak txarto jokatu duela dio. “Ez digute galdetu”. Hasieran izena eta Nortasun Agiria hartu zieten bazkide berriei, baina gero taldeka fitzak bete behar izan dituzte. Beharra pilatu zaie: “Hori guretzako sekulako lana da”. Beste elkarte batzuk ere iritzi berekoak ei dira.

Joseba Mujika alkateordearen ustez, Bildu gezurretan dabil, eta eztabaida apropos bilatu du: “Nahasmena sortu gura dute, etekin politikoa ateratzeko”. Mujikak azaldu du prezio batzuk igo direla, baina “beste batzuk asko bajatu”. Adi-

bide lez ipini du abonu integratu batez merkatu egin direla, eta esan du Durangon baino askoz merkeagoak direla. Adierazi du lehenengoz eskaintzen zaiela hobaria elkarteei, eta elkarteek betidanik izan duten eskaera dela. Azpimarratu du ez dituztela baldintzak aldatu, ordenantzan era orokor batean zehazten dela, eta gero kiroldegiko gerentziak lantzen duela horren garapena.

Iñaki Olaetxea kiroldegiko langileak esan du euren asmoa prezio politika zentzuduna ezartzea izan dela, aurrekoak ez ei zirelako “logikoak”. Kexen aurrean, prezio berriei bazkide kopurua igo egin dela gogoratu du, 764tik 1.217ra.

> GARAI

Txorizo eta odoloste sorta da sari preziatuena

Erremata solidarioan 1.400 euro batu zituzten

> M.O.

Ohiturazko Erremata ekitaldia ospatu zuten joan zen barikuan, Garain. 12:00etan meza izan zuten Elizabarrin, eta ondoren lurrak eta produktuak bedekatu zituen abadeak. Gero hasi

zen enkante solidarioa. Herritarrek produktuak ematen dituzte dohaintzan, eta bertaraten direnen artean banatzen dituzte gero, jai giroan, apustuen bitartez. Pastelak, arrautzak, untxiak, oiloak... Urtero lez,

denetariako produktuak eroan zituzten. Txorizo eta odoloste sortaren truk 70 euro eman zituen herritar batek, eta hori izan zen eguneko ekarpen handiena.

1.400 euro lortu zituzten, apustu guztiak batuta, eta dirua Caritasen eta parrokiaren artean banatuko dutela azaldu zuten ekitaldiaren amaieran.

Dirua Caritasen eta parrokiaren artean banatuko dutela azaldu zuten ekitaldiaren amaieran

Aurten, eliza barruan

Normalean elizaren kanpoaldean egiten dute Erremata, baina haizearengandik babesteko barruan egitea erabaki zuten joan zen barikuan. Eliza barruko epelean egon ziren, eta neguko hotzari aurre egiteko moduko jakiak eroan zituen etxera hainbatek.



Herritarrek eliza barruan egin zuten apustu produktuengatik.

> MAÑARIA

Hilerriko sarbideak berrituko dituzte

Udalak aho batez onartu du 2014rako aurrekontua, eta hilerriko sarbideen obra da inbertsio handiena

> M.O.

2012an irisgarritasunaren inguruan eginiko galdeketa hilerriko sarbideak konpontzea erabaki zuten herritarrek, horretarako eskailerak eta arrapala erabilia. Bada, ideia hori aurten garatuko du udalak, aurrekontuan zehaztu du-eta. Aho batez onartu zuten aurrekontua joan zen barikuan eginiko udalbatzarrean, eta kanposantukoa izango da inbertsio handiena.

Horretaz gainera, 25.000 euro gorde dituzte prozesu parte-hartzailetik etorritako inbertsio proposamenetarako. Bederatzi ekintza izango dira, eta horietako batzuk plazan aurrera eramatekoak. Nagusientzako jokoak ipiniko dituzte bertan, galtzad-harriak konpondu, sarreran piboteak ipini eta aparkalekuko espaloia berritu. Plazako lanez aparte, kultur etxerako bidea oinezkoentzat egokituko dute, eta

hilerrirako bidea ere asfaltatuko dute. Artzubin eta Urkuletan baranda batzuk konponduko dituzte gainera. Bestalde, zabor bilketa sistemen informazioa emateko kanpaina bat garatzea adostu dute. Horiek dira herritarrekin zehaztutako inbertsioak.

Zorrari aurre egiten

Aurrekontuko sarrera -772.000 euro- gastua -752.000 euro- baino handiagoa izango da. Sarrerekin sobera geratzen dena zorra murrizteko erabiliko dute, Endika Jaio alkatearen arabera. Udalak 609.000 euroko zorra dauka banketxeekin, Erralde hiltegiako proiektuaren zorraren zati bat bere gain hartu zuelako. Udaleko arduradunek plan ekonomiko bat diseinatu zuten zor horri aurre egiteko, eta urterik urte murrizten joatea da euren asmoa, sarrerak gastuak baino handiagoak izanda.



Kanposantuko sarbidea aldatuko dute, eskailerak eta arrapala erabilia.

> ZALDIBAR

Itoginak konpontzeko lanak egingo dituzte pilotalekuan

Pilota taldearentzako bulego bat ere atonduko dute

> I.E.

Olazar Pilota Txapelketako pilota partidu batzuk bertan behera uztera behartu zuen pilotalekuko itoginen arazoak, eta obrak egingo ditu Zaldibarko Udalak. “Urte asko dira pilotalekuaren teiltuan ezelako konponketa-rik egin ez dela”, dio Rafa Urizar gobernu taldeko zinegotziak, “eta uste dugu frontoia zaindu beharreko azpiegitura dela; oso eraikin ederra da, eta asko kaltetzen hasia zen, batez ere, hezetasunaren eraginez”. Zaldibarko Udalak abiatuko duen obra honek 13.000 euro inguruko aurrekontua izango du.

Pilotaleku barruan, bestalde, pilota taldearentzako bulego bat ere atonduko dute; taldearen zuzendaritzak batzartzeko eta bere lana egiteko leku aproposagoa izan dezan egingo dituzte lanak

pilotaleku barruan. Arduradunek azaldu dutenez, egunotako eguraldiak teiltatuko beharrei ekitea zaildu du, eta pilotaleku barruko obrarekin martitzen honetan hasi dira.

“Oso eraikin ederra da frontoia, eta asko kaltetzen hasia zen, batez ere, hezetasunaren eraginez”

Berrogeita hamar ume inguruk jasotzen ditu pilota eskolak duela 26 urte eraikitako pilotaleku honetan: “Entrenamenduz aparte, euren arteko partiduak egiten dituzte barikuetan, eta oso giro polita eta bizia dago pilotalekuan”, dio Urizarrek, “erabilera handiko eraikina da, zaindu beharrekoa”.

Kurutziagak izaera berritzailea eta izaera propioa du

EKI eta Eleanitz proiektuekin, konpetentzietan oinarritutako eredua bultzatu gura dute

Kurutziaga ikastolara datorren gazteak euskal giroarekin, eta gertuko eta konfiantzazko harremanarekin egingo du topo lehenik eta behin. Horrez gainera, autonomia lantzeko, pertsona moduan garatzeko eta esperientzia berriak bizitzeko aukera ere emango dion hezkuntza jaso ahal izango du.

Kurutziaga ikastolak DBH-rako EKI proiektuaren aldeko apustua egin du. Euskal curriculumaren garapenerako jaio den materiala izateaz gain, konpetentzietan oinarritutako eredua da. Unibertsitatean ezarri den Bologna Planeko ildoak jarraitzen ditu; beraz, bata bestearen jarraipena dira.

EKI proiektuak integrazioaren pedagogia bultzatzen du; horrek esan nahi du ikasleak ikasitako hainbat arlo elkarrekin lotzen eta ezagutzak bateratzen ikasiko duela. Horrez gainera, edukien lanketarako teknologia berriak erabiltzen ditu: drive, glogster eta audacity, adibidez.

Eleanitz

Ikastolek 1990. urtean sortutako proiektua da Eleanitz. Europar bizitzeko eta bertan integrazteko, euskaraz eta gaztelaniaz aparte, euskaldunok Europako beste hizkuntza batzuk menderatzea nahitaezkoa zela ikusi zuten.

Kurutziagako arduradunek azaldu dutenez, “gure kasuan ingelesa eta frantsesa bultzatu eta gure ikasleek beste herrialde

batzuetan autonomiaz mugitzeko helburuz jarri genuen proiektua abian”.

Kurutziagan, 4 urteaz hasien dira ingelesa ikasten. Eta egindako ibilbidearen ondorioz, DBHko 3. eta 4. mailan Gizarte Zientziak ingelesez lantzeko gai dira. Frantsesa, berriz, DBH osoan aukerako barruan landu daitezkeen laugarren hizkuntza da.

Metodo horretarako ikastolek sortutako euskarri digitalek Erresuma Batuko English Speaking Union fundazioaren President's Awards nazioarteko saria jaso dute.

Eskaintza bereziak

Kurutziaga ikastolak gazteen garapen eta sormenerako aukera ugari eskaintzen ditu. Horietako bat antzerkia litzateke. Euskal Herrian, proiektu hau curriculumean integratuta duen ikastetxe bakarra da Kurutziaga. Urtero, ikasturtean landu ostean, maiatzean, antzezlan bat taularitzen dute San Agustín kulturgunean.

Arloekin lotutako irteera eta ikastaro interesgarriak ere curriculumaren parte dira. Horrela, irteeretan, ikasleak Euskal Herriko hainbat leku ezagutzeko aukera du, eta ikastaroekin, momentuko gaiak lantzen ditu: elikadura arazoak, hezkidetzak eta elkarbizitza, esaterako. Gure ohituretara ere hurbiltzen da ikaslea, Santo Tomas eta Eguen Zuri egunekin, kasu.



Gurasoentzako informazio hitzaldiak DBH ezagutzeko

URTARRILAK 28

Durango 18:30ean

Kurutziaga Ikastolan

URTARRILAK 29

Abadiño 18:30ean

Txanporta kultur etxean

URTARRILAK 30

Berriz 18:30ean

Berrizko Kultur Etxean

DBH eta gero, Ibaizabal ikastola

Ibaizabal ikastolak nahitaezko hezkuntzaren ondorengo heziketa eskaintzen du. Giza

eta Gizarte Zientzia Batxilergoa eta Zientziak eta Teknologia Batxilergoa ez ezik, Lan-

bide Heziketa arloan Haur Hezkuntzako goi teknikari zikloa eskaintzen da hezkun-

tza arautuan. Hezkuntza ez arautuan hainbat ikastaro eskaintzen dira, besteak beste, Arreta Sozio-sanitarioa, Ur-sorosle ikastaroa eta Psikomotrizitate ikastaroa.

Batxilergoa etapa garrantzitsua da ikaslearentzat, bere ibilbide profesionala non kokatu nahi duen erabaki behar duelako. Lanbide Heziketa edo Unibertsitatea? Zein arlotan lan egin? Zer dut gustuko? Zer gaitasun dut nik?

Horregatik, Ibaizabal ikastolan tutorearen lanari garrantzi handia ematen diogu. Tutorea da ikasleak ondoan izango duen profesionala galdera horien guztien erantzuna topatzeko.

Gainera, Ibaizabalen euskara ardatz duen eredu eleanitza lantzen da, IKT edo teknologia berriekin lan egitera ohitzen dira ikasleak, ikas-kuntza aktiboa bultzatzeko

pedagogia egitasmoak lantzen dira... Baina horren guztia gertutasuna, ikasleak aurrera egin ahal izateko irakasle taldeak egiten duen ahalegina da Ibaizabalen balio erantsia.

Eskola orduetatik kanpo ere eskaintza zabala du ikastolak, irakasleek euren borondatez eskaintzen dutena: eztabaida foroak, tertulia literarioak eta *Irakurrixu* aldizkaria, besteak beste.

2013ko irailean 1.000 m2-ko eraikin berria estreinatu berri du ikastolak, urteaz-urteaz gozatzeko doan matrikulari erantzuteko. Orain 12 urte sortutako ekimenaren sendotasuna erakusten du egin berri den eraikinak.

1999an sortu zenetik Hezkuntza gure ingurunea eta gure inguruko bizimodua hobetzeko tresna dela ulertzen dugu Ibaizabalen.



MALLABIA

Rheydek lanaldi murrizketa eskatzearen langile bat kaleratu duela dio CCOO

Enpresak dioenez, zuzendaritzarengana “mehatxuzko jarreragaz” zuzendu zelako kaleratu dute



Hainbat behargin batu ziren atzo Goitondoko protesta ekitaldian.

> JONE GUENETXEA

Goitondo industrialdeko Rheyde Lanabesak S.L. enpresak urtarrilaren 14an langile bat kaleratu zuela jakinarazi du CCOO. Sindikatuak dioenez, langileak egun horretan bertan lanaldi murrizketa eskatu zuen, semea zaintzeko. Elkarretaratzera deitu zuten atzo, arratsaldeko 16:00etan, enpresaren aurrean. Behargina sindikatu horretako delegatu ohia da.

Sindikatuak azaldu du, lanaldi murrizketa eskatu aurretik, hogei urtez lanaldi etenean (goiz eta arratsalde) jardun eta gero, erreleboetara lan egin behar zuela jakinarazi ziola enpresak. Lanaldi aldaketaren aurrean beharginak murrizketa eskatu zuen “ordutegi berri horrekin ezin dituelako bere semearen beharrianak bete”. Beharginak eskaera egin zuen goiz berean jakinarazi ei zioten kaleratzea.

Enpresaren erantzuna

Rheydeko zuzendaritzak kalera-tzearen inguruan duen iritzia- ren berri eman du. Enpresak lehiakortasun irizpideengatik lan sistema lanaldi etenetik erreleboetara pasatu duela adierazi du. “Lantalde osoa pasatu da erreleboetara, eta ez langile hori bakarrik”. Gaineratu dutenez, aldaketaren aurka “legitimitate osoz” zegoen langile bakarra kaleratutakoa izan da.

Enpresak dioenez, aldaketa hau dela-eta, langilea zuzendaritzara “mehatxuzko jarreragaz” zuzendu zen. Gertaera horren ondorioz, enpresak zigor espediente zabaldu ziola eta kaleratzea erabaki zuela azaldu du.

Kaleratu eta bi egunera, langileak, burofax baten bidez, murrizketa eskatu zuela jakitera eman du zuzendaritzak, “ezarritako zigorrari aurre egiteko helburu argiagaz”.

> IZURTZA

30 kilo janari batu dituzte sahararrei laguntzeko

> JOSEBA DERTEANO

Izurtzan 30 kilo janari batu dituzte aurtengo Herria auzo elkar-teak, Saharako errefuxiatuei laguntzeko Durangaldean urtero abiatzen duen janari bilketaren barruan. Dilistak, pasta, atun latak... izurtzarrek denetariko elikagai ez galkorrek eraman dituzte udal txerara edo mediku kontsulta dagoen eraikinean egokitutako gunera. Dagoeneko eraman dute batutako janari guztia Herriak Durangon duen egoitzara.

Dagoeneko eraman dute produktuekin betetako kaxa Herriak Durangon duen egoitzara

Udalak urtero bat egiten du ekimenagaz. Aurtengo janari bilketa aurreko urteetakoaren parekoa izan dela adierazi dute udal arduradunek, eta ekimenagaz gustura geratu dira. Euskal Herri osoan batutako produktuekin, otsailean Karabana Solidarioa abiatuko dute Tindufeko kanpalekura.

> IURRETA

Udalak atzera bota du Goiuriako bete-lekuaren inguruko errekurtsioa

EAJren eta PSE-EEren botoei esker ez da onartu

> AITZIBER BASAURI

Goiuriako kofradiak eta auzotar batek errekurritu egin dute Lukupeko Troka eta Luku Txiki ibarbideak lurrez betetzeko obra eta jardura baimena baliogabetzeko udalbatzaren erabakia. Hala ere, EAJ eta PSE-EEren botoei esker, atzera bota dute berraztertze errekurtsio hori. Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren nahitazeko txosten loteslean oinarritu zen osoko batzarra joan zen irailean, udalak 2010ean emandako baimena baliogabetzeko.

Bilduk onartzearen alde bozkatu du, “eztabaida sakona” behar dela azpimarratuta: “Udalak eskatutako txostena baino ez dugu izan erabakitzeko”. Goiuriako kofradiak eta auzotar batek aurkeztutako berraztertze errekurtsioak bi ardatz ditu: batetik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren ebazpena epez kanpo aurkeztu izana, eta, bestetik, bertan bete-lekurako obra eta jardura baimena ematega-

tik udalaren kontra zabaldutako auzi prozesuak ez aipatzea. Bilduk dio oinarri badiuela horrek, “epe zehar aritzea onartu eta txostenean aldaketak jaso dituelako Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak”.

Aholku batzordeagaz bat

Hala ere, Iñaki Totorikaguena alkateak argitu duenez, “babesgabetasun egoera eman ezean” epeak ez dira arrazoi ebazpena baliogabetzeko. Era berean, auzi prozesuak aipatzea ere ez da “beharrezkoa”. Gaineratu duenez, “lizentzia emateko baimen bat falta denean, hori baliogabeta geratzen da. Horregatik eskatu zen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren ebazpena, auzi prozedurak aparte utzita”. Udalak horrek artxibatzea eskatu izan duela ere gaineratu du.

PSE-EEK Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren ebazpena “zuzenbideari egokitua” dela dioen txostena hartu du oinarri botoa ematerakoan.

3.612 olio litro birziklatu dituzte iurretarek 2013an

Duela hiru urte eta erdi etxean erabilitako olio batzeko bi edukiontzi jarri zituzten Iurretan

> A.B.

Etxean erabilitako olio batzeko edukiontzi bana dago Bixente Kapanaga kalean eta Aita San Migel plazan. Duela hiru urte eta erdi jarri ziren eta, harrezkero, 13.534 litro birziklatu dira; batez beste, urtean biztanleko litro bat. 2013an, 3.612 litro birziklatu dira.

Etzeko olio birziklatzeko “benetako beharraz” ohartarazi gura du udalak, “olio horretatik

sortutako hondakina da-eta ur kutsaduraren jatorri nagusietako bat”. Udaleko arduradunek azaldu dute olio litro bat kentzeak 2,50 euro balio dituela: “Beraz, estolderia sarearen mantentzean aurrezte garrantzitsua da. Araztegiaren ere kostu handia eragiten du etzeko olioak”. Iurretarren ahalegina zoriondu du udalak, eta birziklapena handitzea espero du.



Iurreta aitzindari izan zen eskualdean olio batzeko erabilitako sistema jarrita.

> BERRIZ

Familian irakurtzeko txokoa, otsailean eta martxoan

> A.U.

Gurasoek eta umeek taldean irakurtzeko proiektua antolatu du Berrizko Udalak: Kontuleku. Zapatu goizetan elkartu, eta liburuen bidez umeekin euskaraz gozatzeko esparrua sortu gura izan dute ekimenaren bidez.

Hiru eta sei urte bitarteko umei zuzendutako saioak dira, eta literatura zaletasuna lantzeaz gain, hainbat gai jorrotuko dituzte Kontulekun: afektibitatea, komunikazioa, irudimena, harremanak... Otsailaren lehen hasita, zazpi zapatutan egingo dituzte saioak, talde bitan: hiru eta lau urtekoak batean, eta bost eta sei urtekoak bestean.

Antolatzaileen berbetan, guraso euskaldunei eta ez euskaldunei zuzenduta dago ekimena. Euskaldunekin saio osoa euskaraz egingo dute, eta ez euskaldunekin, berriz, tartekatuta egingo dituzte hizkuntzak: “Haurrek ikusiko dute gurasoek euskararik jakin ez arren, euskarazko jardura horretan biak batera gustura ari direla”.

> DURANGALDEA ASTEON**Asen Lavinek irabazi du Abadiñoko euskarazko piropo lehiaketa**

“Zu ilgora, ni ilbehera, eta biok batera ilargi bete” esaldiagaz irabazi du Asen Lavinek Abadiñoko lehenengo piropo lehiaketa. Traña-Matienakoa da Lavin, eta bi lagunentzako hoteleko gaua eta gosaria irabazi du. Lehiaketara 24 piropo aurkeztu dituzte, eta 14 pertsonen parte hartu dute. Barrizten kultur elkarteak antolatu du lehiaketa, eta datorren urtean berriro antolatze-ko asmoa azaldu dute.

ONCEren sari nagusia, lurretako gasolindegian

Maspe kaleko gasolindegian saldu dute ONCEren Cuponazo zozketaren 9 milioi euroko saria irabazi duen kupoia. Gasolindegian azaldu dute irabazlea Durangaldekoa izateko aukera asko daudela: “Gure gasolindegira datozen bezeroen %10 baino ez da kanpokoa”.

‘Bakearen domeka’ ospatuko dute Santa Anan

Durangoko Santa Ana elizan bakea eta elkarbizitzaren aldeko ekitaldia izango dute domeka honetan, 18:00etan. Laugarren urtez antolatu dute ‘Bakearen domeka’; Tabira Pastoral Barrutiko parroketako kideak batuko dira, bakearen aldeko konpromiso aktiboa erakutsi eta otoitz egiteko.

Energia eredu berrien gaineko berbaldia, gaur, Elorrioren

Energia iturrien auzian sakontzeko berbaldia egongo da gaur Elorrioko kultur etxean, 19:00etan. Goieneko energia berriagarrien kooperatibako kideak, eta ECCOO eta PXINME eredu energetiko berrien aldeko plataformak izango dira mahainguruan. Elorrixa ekologista taldeak, Auzo Koordinakundeak eta EQUO antolatu dute hitzaldia.

> ATXONDO

Autobus geltoki berriko lanak N-636 errepide ondoan.

Autobus geltoki berriko lanek hilabete inguru iraungo dute

Orain autobus geltokia Carrocerias Atxondorako sarreran dago, behin-behinean

> JOSEBA DERTEANO

Astelehenean hasi ziren Elorriorako noranzkoan autobus geltoki berria egiten. Hilabete inguru iraungo dute lanek, eta, bitartean, Carrocerias Atxondo enpresarako sarreran dago autobusa geratzeko toki berria.

Autobus geltoki berria errepidearen ondoan egongo da, eta ez barrualdera sartuta dagoen gaztetxearen parean, orain arte moduan. Zehazki, sasoi batean hotela zegoen eraikinaren eta semaforoaren artean dabilta

geltokia egiten. Lan horien eraginez, autobusak ezin du sartu gaztetxe parera. Horregatik,

Lanen ondorioz autobusa ezin da gaztetxera igo, eta, bitartean, beste toki bat bideratu dute

udalak behin-behineko geltoki bat aurreikusi du Carrocerias Atxondo enpresarako sarreran

(Itziar tabernaren ondoan). Geltoki berria egin arte han geratuko da Elorriorako noranzkoan datorren autobusa.

Gobernu taldeak abenduko udalbatzarrean jakinarazi zuen Bizkaiko Foru Aldundiak baiezkota eman ziola proiektuari. Lanak prozedura negoziatu bidez esleitzeari ekin zioten berehala, eta urtarrilean hasi dira egiten. Autobus geltoki berria egiteko 57.800 euroko diru-atala bideratu duela adierazi zuten abenduko udalbatzarrean.

> OTXANDIO**Plaza eraberritzen hasiko dira, laguntzak jasoz gero**

2014ko aurrekontuetako inbertsio bat plazari dagokio

> J.D.

Joan zen eguneko udalbatzarrean gobernu taldearen (Bildu) aldeko botoekin onartu zituzten 2014ko aurrekontuak. EAJ abstentitu egin zen, alkatea egun heren batean liberatuta egotearekin ez daudelako ados, Javier Garate zinegotzi jeltzaleak azaldu zuenez.

Iazko aurrekontuekin alderatuta, udaleko kutxa “egoera hobean” dagoela azaldu du gobernu taldeak, batez ere arrazoi birengatik. Batetik, ohiko sarre-
rak 153.760 euro igoko direla au-

reikusit dute eta ohiko gastuen igoera 70.532 euroan kalkulatu dute. Bestetik, Udalkutxari itzuli beharreko zenbateko osoa iaz itzuli zuten.

Inbertsiorako geratzen den diru ataleko zati bat, beste ezer baino lehen, zor bi ordaintzen jarraitzeko erabiliko dute. Batetik, Erraldek sortutako zorra ordaintzeko. Berrizten erosten dabilzan lur zatiari dagokion hipotekaren zenbatekoa 15.000 eurokoa da aurtan. Bigarrena, Zerrabiden udalak dituen lur zati-
en hipotekari dagokio.

Aurtengo inbertsioen artean bi nabarmentzen dira: Plaza Nagusia eraberritzeko lehen fasea eta eskolan eta pilotalekuan biomasa galdara ipintzea. Biak Jaurilaritzaren eta Aldundiaren diru-laguntzen menpe daude. Laguntzok jasotzen badituzte, aurtan ekingo diete proiektu biei. Plaza Nagusiko proiektuaren lehen faseak Vulcano inguruari, eta zuhaitz eta jarlekuen arteko eremuari eragingo dio.

Ohiko gastuetan, lanaldi erdiz garapen teknikari bat kontratatzea aurreikusi dute. Teknikari horren zeregina herriko garapen sozioekonomikoa aztertzea eta sustatzea izango da. Eskualde mailako ekimenetan jarraituko dute, baina gobernu taldeak inportantea deritzo Otxandiori begirako plangintza zehatza lantzeari.

700 ekarpenetik gora jaso dituzte Amets Egunean**> J.D.**

Otxandioko eskolako ardura-dunak oso pozik daude joan zen barrikuko Ametsaren Jaiak jaso zuten harreragaz. Batetik, ikas-

le, irakasle eta gurasoen artean landutako *flashmob* bat grabatu zuten zazpi kameragaz, hurrengo egunetan editatu eta ikusgai ipiniko dutena. Bestetik, ikas komunitatea egitasmoa bideratzeko 707 ekarpen jaso zituzten. Orain, guraso, irakasle eta irakaslearen artean osatutako batzordeak ekarpenak lehentasunen arabera sailkatuko ditu.



Koloretako puxika pila zerurantz, joan zen barrikuko Ametsaren Jaiak.

katerin ardoak
inñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

▶ Berbaz

Jabier Sagastizabal eta Jose Luis Gallastegi | Durangarrak, Vicente Zavala elkarteko kideak

“Aita Zavalaren lana jarraitu gurako genuke; ea gai garen urtero liburu bat argitaratzeko”

Vicente Zavala zenaren izenagaz elkarteak sortu dute hainbat durangarrek. Abadeak Durangoko historia eta ohiturak aztertu eta liburuxkak atera zituen ‘Kurutzega’ bilduman. Bere lana ezagutarazi eta “ahal balitz”, lan horrekin jarraitzea da elkartearen asmoa.



> AMAIA UGALDE

1980an idatzi zuen ‘San Fausto de Durango’ liburuxka Vicente Zavala jesuitak. Gerora beste 29 liburuxka kaleratu zituen, hogeitaz berak idatziak, eta besteak kolaborazioak. Tolosarra jaiotzez, San Fausto auzoko parrokoa izan zen urte askoan. Zortzi urte dira hil zela. Bere lan kulturala zabaltzeko elkarteak sortu dute orain hainbat durangarrek, eta ‘www.asociacionvicentezavala.com’ webgunea jarri dute martxan.

Duela urte bete sortu zenuten Vicente Zavala elkarteak. Zelan izan da orain artekoa?

Jabier Sagastizabal: 2004an hil zenetik, bere lan kulturalagaz ez da ezer egin, eta lan horri buruz galdezka hasi zen gaur egungo San Faustoko parrokoa. Zavalak 30 liburu publikatu zituen, Durangoko historia eta ohituen gainean. 31.a izango zena, Durangoko historia garai-kideari buruzkoa, amaitu barik dago, Zavala informazioa batzen zebilela hil baitzen bat-batean, eta ez zen argitaratu. Lanok batu eta webgune bat sortzea erabaki dugu. Han ipini ditugu agortuta dauden lanak, eta publikatu barik utzi zuen lan hura.

Hori izan zen egin genuen lehen gauza.

Liburuak zabaltzen ere ibili zarete, ezta?

J.S.: Zavalak berak ez zituen Durangotik kanpora zabaldu. Harpidedun batzuk zituen; eta udalak ere erosi zizkion liburute-girako, eta bisitetan banatzeko. Guk Durangoko eskoletan eta liburu dendetan banatu ditugu, eta Bilboko liburutegietara, Al-dundira eta Eusko Jaurlaritzara ere banatu ditugu ale batzuk, adibidez. Jaurlaritzako Kanpo

“*Herri gutxi egongo dira euren historiaren inguruko hogeita hamar libururekin*”

Harremanetarako Idazkaritzak liburu batzuk eskatu dizkigu Amerikako euskal etxeetarako. Frai Juan Zumarraga eta Bruno Maurizio Zabalaren gaineko

liburuak daude tartean, beraz, Ameriketako gaiak ere badira.

Jose Luis Gallastegi: Durangoko liburu denda guztietan banatu ditugu, eta sei euroan daude. Hiru liburu hartuz gero, bost euroan.

Durangoko historia dago, azken finean liburuetan.

J.S.: Herri gutxi egongo dira euren historiari buruzko hogeita hamar libururekin!

Liburu batzuk agortuta daude eta publikatu ez zen azken lana ere hor dago. Berrargitaratu gurako zenituzkete?

J.S.: Momentuz ez daukagu horretarako dirurik; horregatik erabaki genuen webgunearena.

Webguneak hainbat atal ditu.

J.S.: Badago *Durango munduan* izeneko atala; munduan zehar Durango izenagaz dauden hiri eta kaleen inguruko. *Durangarrak munduan* atalean, kanpotik dabiltzan durangarrentzako txokoa egin gura dugu, eurek gura dutena bidaltzeko. Agendarako atala ere sortu dugu, eta gustatuko litzaziguke bertan herriko elkarte eta erakundeek edozein ekitaldiren berri ematea.

Zelan gogoratzen duzue zuek Vicente Zavala?

J.S.: Nik Jose Luisek baino harreman gutxiago izan nuen, baina, nire ustez, gizon ona zen. Momentu guztietan besteen zerbitzura zegoena.

J.L.G.: Nik hartu-eman handia neukan berarekin. Oso gauza anitzetan egin zuen lan, eta zabalik zegoen ideia guztietara. Formazio teknikorako gau-eskolak sortu zituen, Ama Birjinaren Kongregazioa, Alkoholiko Anonimoen taldea, Errege magoen desfilea... Durangoko Kulturalaren denbora gaitzetan, taldeari laguntzeko lana egin zuen beste kirolzale batzuekin. Hori egin ezean, desagertu egingo zen. Elizei dagokienez, San Faustoko eliza guztiz hondatuta zegoen, eta auzoko jendearen laguntzarekin eliza konpondu zuen. Tabiran ere bai; Tabirako eliza berari esker dagoen moduan.

J.S.: Herritarrak oso gustura zeuden berarekin. Kontuak atera: San Fauston, Durangoko auzo pobreena izanda, parrokiak bere burua finantzatzan zuen, ez zeukan elizbarrutiari dirua eskatzeko premiarik. Konfiantza igortzen zuen gizona zen. Imaginatu zelako eragina zeukan in-

guruan: bere ingurutik bost abade eta hainbat moja irten ziren.

J.L.G.: Drogazaleekin ere egin zuen lan; babes moral eta ekonomikoa ematen zien. Bonuak ematen zizkien, jatekoa denda konkretu batean erosteko. Familia batzuren diru-laguntza izaten zuen horrelako kontuetarako.

J.S.: Eta, gainera, gauza horiek guztiak egin eta denbora hartzen zuen idazteko. Nire ustez, Zavalak historialari bokazioa zeukan. Artxiboak arakatzea eta... Ez zen Durangokoa, Tolosakoa zen izatez, baina Durangon oso ondo bertakotu zen.

Aurrera begira, elkarteak zer erronka dauka?

J.S.: Diruz ez gaude oso ondo, baina putzutik irteten garenean, Zavalaren lanarekin jarraitu gurako genuke; ea gai garen urtero liburu bat ateratzeko. Nik uste dut materiala egon badagoela; geroago eta jende gehiago dabil ikasten, eta tesina edo lanen bat egingo balute Durangoko gaiekin, interesgarria izango litzateke liburuxkoa argitaratzea; ondo legoke 2015ean 32. zenbakia ateratzea, adibidez. Bitartean liburuak zabaltzen jarraituko dugu.

Dolma Romera | Durango, 1976. | Banarte antzerki taldeko kidea

“Antzezlan oso bizirik dago; entseguak egiten eta gauzak hobetzen jarraitzen dugu oraindik”

Justina Garateren papera antzezten du Romerak ‘Guernica 1913’ obran. San Agustín kulturgunean eskainiko du Banarte taldeak antzeztan hori, bihar

> ITSASO ESTEBAN

‘Guernica 1913’ da parte hartu duzun obrarik zailena?

Bestelako lana da hau. *Abuelita de Batman* komedia zen, eta drama da *Guernica 1913*. Askok nabil disfrutatzen obra honekin; denbora gehiagoz egoten naizelako oholtzan, besteak beste.

Askok landu duzu pertsonaia?

Sardo Irisarri zuzendariaren lanari esker, ez naiz kontziente izan pertsonaia prestatzeko esfortsu eta lan handia egin dudarik. Sardoren lan egiteko moduari esker, ez naiz konturatu zenbat nabilen ikasten. Oso oso gustura jardun dut pertsonaia prestatzen. Berak zer nahi duen esaten dit, eta nik, zer gura duen ulertzen dudala sentitzen dut.

Noiztik zabilzate zuzendariarekin lantzen obra hau?

Duela urtebete ingurutik. Testua ikastea da lehenengo pausoa, gero, ekintzak eta eszenak zelan gauzatu ditugun zehaztea, eta, azkenik, jarrera lantzea. Parterik politena izan da azken

hori. Antzeztan hau oso bizirik dago; entseguak egiten eta gauzak hobetzen jarraitzen dugu. Sorkuntza prozesua ez da amaitu.

Zelako aldaketak barneratu dituzue antzeztan?

Txato Etxaniz historialaria gure entseguetan egon da, esaterako, gure lanari bere ekarpenak egiteko, antzezlanaren ikuspegi historikotik aberasteko.

Zelakoa da zure Justina?

Etxeko zutabea da. Alaba bat dauka aitak jakin ezin duen arazo handi batekin. Bere senarra sindikalista da, eta oso lanpetuta dabil grebaren kontuarekin. Justina erdian dago. Izan ere, lan egiten du, eta langileak grebara bideratu dituen egoera berak ere bizi du bere azalean.

Harrigarri egin zaizu duela 100 urteko historiaren parte hori?

Egia esan, ez. Elkartasun eta kontzientzia sozial txikiagoa daukagun arren, harrigarria egiten zaidana da zelako antzezoak diren orduko gizarte eta

gaur egungoa. Penagarria da, baina problemak berberak dira.

Zenbat denbora daramazu Banarte taldean? Zelan hurreratu zinen taldera?

Duela bost urte sartu nintzen taldera, betidanik eduki dudalako antzerkiarekiko interesa. Orain bost urte lagun batekin zidan Banarteri buruz berba, eta horrela hasi nintzen.

“

Errespetu handia ematen dit Durangon aritzeak, baina urduritasun atsegina da”

Zer lan mota egin duzu Banarterekin hau baino lehen?

Lehenengo Banartek eskaintzen duen antzerkigintza ikastaroekin hasi nintzen, gero, ikasturteko emanaldian parte har-



tzen hasi nintzen, eta bi obratan hartu dut parte. *Abuelita de Batman*, eta bihar Durangon eskainiko dugun *Guernica 1913*n.

Durangarra izanda, San Agustíneko emanaldiak urduritasun berezia sortzen dizu?

Egia esan, bai. Errespetu handia ematen dit Durangon aritzeak. Baina urduritasun atsegina da.

Zer ematen dizu antzerkiak?

Agertokira igotzen naizenean, guztiz aldentzen naiz, ahaztu egiten zait inguruko guztia, eta asko gozatzen dut. Antzerkia eta Banarte taldea, nire uharretxoak dira: beste batzuk mendira edo gimnasiora joaten diren bezala, ni antzerkiak eta bere inguruko guztiak barrubetetzen nau.



Justina Garate eta Fermín Larragoicoa pertsonaia.



Gidoia idatzi zuen, eta antzezte lanetan ere badihardu Rafa Hercek.

Euskal Herriko historiako aldi baten garrantzia taularatu dute

XX. mende hasierako Euskal Herriko klase borrokaren kontakizuna

Urriaren Gernikako Lizeo antzokian egin zuen Banarte antzerki taldeak *Guernica 1913* obraren estreinaldia, eta Abadiñoako Errota kultur etxean egin zuten aurrestreinaldia. Harrera oso beroa egin zion publikoak obrari.

Durangoko San Agustinen izango da bihar emanaldia, eta, gero, Erandion eta Urdulizen ere eskainiko dute *Guernica 1913* antzezlan. Bestalde, gaur, 18:30etik aurrera, Durangoko Andra Marin egongo dira Banartereko kideak, jendea biharko emanaldira gonbidatzeko: kalera aterako dute obraren eszenografia, promoziorako.

Benetako gertakarietan oinarrituriko obra da *Guernica 1913*: Gernikazarra historia taldeko Txato Etxanizek jasotako informazioan oinarriturik, eta bere aholkularitzagaz, Rafa Hercek duela 15 urte inguru idatzirikoa. Durangoko Geroa antzerki taldeko kide izandako Sardo Irisarri da obraren zuzendaria, eta, besteak beste, Aitor Coello taldekideak egingadako musika dauka.

XX. mende hasieran Gernikan jazotako klase borrokari loturiko gertaera historikoa du oinarri antzeztan: armagintzako Esperanza y Unceta enpresako (gero Astra izenez

ezaguna egingo zena) langile eibartarrek 1913ko udazkenean Gernikan egin zuten greba.

Lantokia Eibartik Gernikara aldatu dietenean, Busturialdera lanera eta bizitzera doazen Fermín Larragoicoa eta Justina Garate bikotea, eta Arrate euren alaba dira Banarteren lanaren protagonistak. Antagonikoak ziren bi munduren, bi klase sozialen, elkartetik sortu zen gizarte berriari buruzko obra da, eta ehun urte geroagoko, gaur egungo, gizarteari buruzko gogoeta ere egiten du Banartek. Izan ere, antzeztaneko eszenetako batzuk 2013. urtean kokatu dituzte.

> IKASTAROA

Historiari buruzko saioak: Humanitates

> I.E.

Otsailaren 2ra arte egongo da Humanitates ikastaroetan izena emateko aukera; Museoan, Etxezarreta jauregian, eman daiteke izena. Bertan eta Kuruzesantun izango dira ikastaroetako saioak, 19:00etan. Durangoko Arte eta Historia Museoak eta EHU-k antolatutako dituzte ikastaroak.

Artearen historiari eta munduaren historiari buruzko gaiak landuko dituzte, otsailean eta martxoan izango diren saioetan. Euskal Herriko artea eta kultura ondarea landuko dute, esaterako, Kuruzesantun: Euskal Herriko musika tradizionala, abangoardiaren eraginak, Bilboko Arte Ederren Museoako euskal arte bilduma, eta abar.

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek eta historian adituek eskainiko dituzte Humanitates zikloko ikastarook. Esaterako, arkeologiaren ikuspegia emango du Belen Bengoezia Durangoko arkeologoak.

> MUSIKA

Berrizen ariko da John Berkhouk taldea, bihar

Folk-rock eta psikodelia ukituko doinuak izango dira entzungai, John Berkhouk taldearen eskutik

> ITSASO ESTEBAN

Oiartzungo John Berkhouk taldearen emanaldia hartuko du bihar, 20:00etan hasita, Berrizko Kultur Etxeak. Folk-rock eta psikodelia ukituko musika eskainiko dute gipuzkoarrek, bost euro-

ko sarrera izango duen Berrizko zuzeneko horretan.

Instrumentazio eta ahots lanketa bereziko *The path* moduko kantetan, taldearen bide musikala erakutsiko du John Berkhouk, Berrizen. Gita-

rrak, teklatura, bateria, klarineta, saxoa eta perkusioa izango dira entzungai. Musikak iradokitako bideetatik, *Lost in the wild* bezalako abestiekin, paisaia bereziak imajinatzen gonbidatuko dute entzulea.

Hamarkada bat baino gehiago daramate taldekideek elkarrekin jotzen, eta azaroan aurkeztu zuten Warner ekoiztearekin kaleratu duten lehenengo lan luzea. Ordutik hona, kantarik eta diskorik onenen zerrendetan lehenengo postuetan aipatzen dute euren izena.



Hamarkada bat baino gehiago daramate taldekideek elkarrekin jotzen.

> MUSIKA

Bost bertsio jasotzen dituen diskoa kaleratuko du Martxoak 31 taldeak

Zarama taldearena da abestietako bat, eta Roberto Mosok kolaboratu du



Martxoak 31ko taldekideak eta hainbat taldeetako lagunak, joan zen zapatuan, Berrizko Estoldetan estudioan. Ainhoa Martin.

> JOSEBA DERTEANO

Joan zen zapatuan Martxoak 31 taldeko kideak Berrizko Estoldetan estudioan batu ziren. Taldea ez da berriro batuko eta

ez dute zuzenekorik eskainiko. Egun horretarako bakarrik batu dira eta beste bat zen helburua: taldearentzat modu batera edo bestera esanguratsuak izan

diren bost talderen bertsioak grabatzea. Horiekin osatutako EPa martxoaren 31n salgai jarzea da helburua. Hauek dira diskoa osatuko duten bost ber-

tsioak: The Ramones taldearen *Don't go*, Deskarga MPB-ren *Zona muerta*, The Jesus and Mary Chain-en *Happy when it rains*, Rolling Stones-en *Out of time* eta Zaramaren *Bidea erutzen*.

Kamikaze Eguna deitu diote egun horri, bat-bateko kontua izan delako. Egun horretan bertan batu, pentsatu, diseinatu eta grabatu zituzten abestiak, lagun giroan. Ohiko boskoteak (Juan Hernández, Alberto Gallego, Andoni Ruiz, Iokin Elortza eta Iban Gorriti) hainbat taldeetako kideen kolaborazioa izan zuten: Zarama taldeko Roberto Moso, Zebel taldeko Sergio Quero eta Jo Keen, Tanga Opilak taldeko Ajo Ramone eta Tres41 taldeko Mikel Puro. Betagarri taldeko Aitor Agirre aritu zen teknikari lanetan.

"Aspaldiko ezagunak ditut eta oso gustuko izan dudana taldea da", adierazi du Roberto Mosok, eta horregatik kolaboratu du.

GEURE DURANGALDEA**LIBE MIMENZA**

Kazetaria

**Desobedientzia**

Denboraren orratzak azkar doaz, baina denboraren lorratza emeki gardentzen da. Sukaldeko egutegiak zuri-beltzera egin zuten oharkabea, eta gaur, kakoa hutsik dago. Egunak erauzi genizkion urte zaharrari, edo egunak paseoa iragan ziren, jada berdin du. Ez itzultzeko joan ziren.

Baina joaneko bidaia horren lehenaldiak etorkizunera garamatzala usaindu nahi nuke. Agian neure ezkaratzen soilik gertatzen da, baina aizue, hemen kiratsak beste perfume bat hartu du.

Bazterrak desobedientziaz bete zaizkigula irakurri nahi nuke; esplizituki, implizituki eta subliminalki. Gezurra litzateke. Eta gezurrak hanka motz.

Baina lurzoru emankor horrek kimu berriak erne ditu duela ez asko. Desobedientzia tresna zaharrari hautsa kendu eta eraldaketarako duen balio sinbolikoa zein den ikusi dugu. Tresna hutsa da, hala ere, erabiliko duenik gabe. Eta noski, sinbolismotik lorpenetara dagoen alde gurutzatu beharra dago.

Norbanakoak batuta, eskubide sozialak kolektiboki landuta, errebeldia sozial kolektiboarekin egin dut amets gaur. Gaztetasuna izango da... diozu zuk irakurle, amestea bera inuzentearen gaitza baltz bezala.

Defentsiban urraturiko belaun haien gainean zutitu, eta artez, ofentsibari ekitea dagokigu. Sortzeko garaia da.

Ez itzultzeko joango diren egun berriak datoz. Horregatik, berriz ere, sukaldeko kakoa hutsa kolorez jantzi dugu. Eta obedituko (ez) dugun aurtengo egutegiak honela dio letra larriz: "Pertsona txiki askok, leku txikietan, gauza txikiak eginez, mundua alda dezakete".

La Papa & L'Atelier
Con los pies en las nubes

Urtarrilaren 31n - 20:00etan
Otsailaren 1ean - 20:00etan
Otsailaren 2an - 18:00etan

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO GELA

PLATERUENA | Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

URTARRILAK 24 - 22:30ean DOAN
LOKALETIK AT
BAGHDAD (Durango) + AMORRU (Elorrio)
MUSIKA KONTZERTUAK

URTARRILAK 25 - 22:30ean 10 euro
TRIBUTU GAUA
exKISSitos + READY AIM FIRE
MUSIKA KONTZERTUAK

URTARRILAK 26 - 18:00etan DOAN
AIKO ERROMERIA
DANTZALDI IBILTARIA

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Bulegorako ziguiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

JAIAK!

San Blas

2014ko OTSAILA | ABADIÑO



2014 San Blas
ABADIÑO

*Abadiñoako Udalak jai
zoriontsuak opa deutsuez*

www.abadiño.org



Abadiño

Hizateko Udala

SAN BLAS JAIEN EGITARAUA

Urtarrilaren 26a, domeka

09:00 'Abadiñon auzorik auzo' ibilaldia. Gerediagako baselizatik irtengo dira eta Txanporta plazan amaituko dute, 13:00-13:30 bitartean. Irteeran argazki bat egingo zaio ibiltarien talde osoari. Hamabi Harri auzo elkarteak antolatuta.

Urtarrilaren 31a, barikua

18:30 San Blas 2014 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinketean.

18:30 Ardo dastaketa, txosnagunean.

21:00 Bertso afaria: Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio, Gaztañodi elkarteak. Txartelak Petite liburu-dendan, eta, Soloa eta Xirimiri tabernetan daude salgai. Gogaikarri bertso eskolako kideek ere parte hartuko dute.

Otsailaren 1a, zapatua

Eguerdian hasita, 'Euskal Preso eta lheslariak etxera' eguna antolatu dute txosnagunean. Bazkaria eta kontzertua antolatu dute: Kilauea+Ghetto+Bad Sound System.

16:00 San Blas 2014 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinketean.

Otsailaren 3a, astelehena (San Blas eguna)

Goizean Azoka: Ganadua, baserriko tresneria, ortuariak, frutak, gaztaia, txakolina, ogia, ezta, artisautza produktuak eta landareak.

Goizean XXII. Abelburu Erakusketa.

09:00 Txanbolin taldeko txistularien kalejira.

11:00 Meza nagusia, San Trokaz elizan.

11:30 San Blas 2014 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinketean.

12:00 Bertsolariak Ferialeku plazan: Gogaikarri bertso eskolakoak, Xabier Amuriza eta Beñat Ugartetxea.

12:30 Herri-kirolak probalekuan: Aizkolariak: Bihurri, Olasagasti, Larretxea eta Zelai. Harri-jasotzaileak: Joseba Ostolaza eta Izeta II.

12:30 Enkartelada: 'McDonalds eta Burger King ez zarete ongi etorriak!', txosnaguneak antolatuta. Egun osoan taloak eta ogitartekoak izango dira txosnagunean; baita jantokia ere.

17:00 Erromeria Ferialeku plazan: Lotxo taldea.

17:00 Idi-probak: Igeldo (Zumarraga), Juan Luis Ormaetxe (Zamudio) eta Egoitz Armaolea (Zumarraga).

22:00 Idi-probak: Ekomet (Mungia), Biritxinaga (Bakio) eta Javier Arizti (Legazpi).

Otsailaren 3tik 7ra

Erakusketa 'Abadiñoko emakume baserritarrak' argazki erakusketa, Txanporta kultur etxean.

Otsailaren 4a, martitzena (San Blas Txiki eguna)

19:30 Abadiñoko Done Zezili abesbatzak Santa Agedaren koplak abestuko ditu kalerik kale.

21:00 Idi-probak: Iñigo Aurrekoetxea (Loiu), Elordui (Berango), Patxi Arzadun (Aia) eta Intxilarte (Errenteria).

Otsailaren 7a, barikua

18:30 San Blas 2014 Pilota Txapelketako finalak eskuz, Tornosolo trinketean.

21:00 Idi-probak: Patxi Irarreta (Errenteria), Juan Agustin Bilbao (Goiherri-Erandio), Ekaitz Elordui (Berango) eta Roberto Erkiaga (Berriatua).

Otsailaren 8a, zapatua

18:00 'Katillukadak' txotxongilo antzerkia, Txanporta kultur etxean. Sei urteik aurrerakoentzat (gonbidapenak urtarrilaren 27tik aurrera daude eskuragarri udal mediatekan. Pertsona bakoitzak gonbidapen bi, goitik jota).

21:00 Idi-probak: Luberri (Birle-Billela), Txomin Renteria (Bakio) eta Epiola (Oikia).

Otsailaren 9a, domeka

18:00 Idi-probak: Zubibarri (Bolibar), Taberna Goieta (Mungia), Soarte (Elgoibar) eta Urrutikoetxea Anaiak (Urduliz).

Otsailaren 10a, astelehena

17:00 Idi-probak: Iñaki Lopategi (Birle-Billela), Landazabal (Laukiz) eta Bizkarre (Usurbil).

22:00 Idi-probak: Arientza (Elorrio), Hermanos Arzadun (Aia) eta Iñaki Oldiden (Orio). Ondoren, sari banaketa.

Otsailaren 15a, zapatua

10:00 XXVI. Burduntziko Bildots Txapelketa. Txakoli erakusketa ere bai.

14:00 Bildots bazkaria, probalekuan.

Otsailaren 19tik martxoaren 7ra

09:00-20:00 San Blas 2014 Argazki Lehiaketako Erakusketa, Errota kultur etxean. Zapatuetan, 10:00etatik 14:00etara.

MOTOS TABIRA
KONTZESIONARIO OFIZIALA
Salmenta Konponketa Boutiquea

AJP
PIAGGIO
KAWASAKI
YAMAHA

Tel./Faxa: 94 681 40 68
www.motostabira.com
Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO

SERRATU S.L.

25. urteurrena

GALDARAGINTZA ETA ITXIERAK

Astola, 48 48220 ABADIÑO Bizkaia
Tel.: 946 201 837 Fax: 946 818 635

SERRATU S.L.
Enpresetako mantentze-lanak

Auzorik Auzo, domeka goiza ibiltzen gozatzeko proposamena, Abadiñon

Gerediaga auzoko Hamabi Harri auzo elkarteak antolatu du, bederatzigarren urtez, Auzorik Auzo ibilaldia. Urtarrilaren 26rako luzatu dute aurtengo hitzordua, San Blas jaien aurretxoko zita



Iaz 350 ibiltarik eman zuten izena, Gerediagako baselizako irteera puntuan, Auzorik Auzo ibilaldian parte hartzeko.

> ITSASO ESTEBAN

Lagunartean eta giro herrikoian, goiz pasa ederra egitera batuko dira ehunka lagun, Gerediaga auzoan, domekan. Izan ere, bertatik abiatuko da Auzorik Auzo ibilbilaldiaren bederatzigarren edizioa. Azken urteetako ohiturari jarraituta, 8:45ean emango dute ekitaldian parte hartzera hurreratzen direnek izena, eta ibiltarien familia argazkia egin eta gero, 09:00etan abiatuko dira, Abadiño auzorik auzo, pausoz pauso, bisitatzera. Antolatzaileek espero dute, 13:00etan ailegatzea ibiltariak Txanporta plazako helmugara.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, iazkoa baino apur bat luzeagoa da aurtengo ibilbidea, eta 17 kilometro inguru beteko dituzte parte hartzaileek, oinez.

Urtero saiatzen diren bezala, ibilbidearen zatiren batean berritasunen bat eskaini gura izan dute aurtengo ibilbidearen antolatzaileek. Batetik, Gaztelua auzoko ur gordetegitik Aristi baserri-rainoko bidea, orain arte zapaldu bako bide batetik egingo dute. Bestalde, Sagasta auzotik

gora egin barik, beheko ibarretik jarraituko dute: kilometro eta erdi inguruko zati hori basorik baso osatuko dute, aurtentzen, lehenengoz.

Datorren urteko hamargarren edizioari begira, bi-hiru ibilbide zehaztu, eta horiek txandakatzea dute asmoa, antolatzaileek azaldu dutenez.

“Argi utzi beharrekoa da”, azpimarratu dute antolatzaileek, “hau ez dela martxa bat, hau ibilaldi bat dela”. “Gure helburua ez da bidea ahalik eta denbora gutxienean egitea: hau paseo bat da, domeka goiza lagunartean emateko aitzakia”.


Ekimenaren hasierako asmoa Abadiñoko auzoetako bizilagunak ibilbidearen antolakuntzan inplikatzeko zen: “Ez bakarrik parte hartzen. Hasi-rako helburua, jendeak antolaketan laguntzea zen, eta auzoen arteko harremana eta elkarla-

Hasi ziren urtean 95 partaide erakarri zituzten, eta iaz 350 lagun inguruk eman zuten izena ibilaldiaren irteeran

na bultzatzea”. Baina Hamabi Harri elkarteko kideak aritu izan dira azken urteotan hitzordua hau antolatzen.

San Blas jaien egitarauaren barruan bere lekua egin du zortzi urteotan Auzorik Auzo ekitaldiak, eta parte hartzera gero eta jende gehiago hurreratzen da. Parte hartzaile kopuruagaz pozik daudela diote Hamabi Harriko antolatzaileek. Hasi ziren urtean 95 partaide erakarri zituzten, eta iaz 350 lagun inguruk eman zuten irteeran izena –erdi baino gehiago abadiñarrak. Antolatzaileek azaldu dutenez, Bizkaiko zein beste herrialde batzuetako hainbat herritako jendeak parte hartu izan du Abadiñoko Auzorik Auzo ibilaldian. Adin guztietako jendea batzen da, gainera.

Bidean bi geldialdi egingo dituztela azaldu dute Hamabi Harrikoek: hirugarren kilometroan fruta banatuko dute eta seigarrenean salda. Ibilaldian amaieran, oster, trikitilarien emanaldia eta pintxoak ere eskainiko dituzte. Izena ematen duten guztien artean, gainera, zozketa egingo dute, hainbat opari banatzeko.



JUAN BERISTAIN

NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

HONDA

STIHL

SAME

pasquali

VIKING

CARON





Abelburuen erakusketarako gunea ere atonduko dute.



Abadiñoako ekoizleek izaten dute azokan parte hartzeko izena emateko lehenetasuna.

80 postuk baino gehiagok salduko dituzte baserriko produktuak azokan

Otsailaren 3an, 09:00etatik 15:00ak arte, denetariko nekazaritza produktuak eskainiko dituzte Zelaietan

ITSASO ESTEBAN

San Blas eguneko urteroko nekazaritza eta artisautza azoka atonduko dute, otsailaren 3an, Abadiñoako Zelaieta auzoan. Goizetik eguerdira arte eskuragai izango dituzte baserrietako kalitatezko produktu freskoak eta denetariko jakiak urteroko hitzordura faltarik egiten ez duten ehunka bisitariak.

Iaz domekan izan zen San Blas eguna, eta horrek bisitari kopurua asko gehitzea eragin zuen: 2013ko azokagaz oso pozik geratu ziren ekoizleak eta beroren antolatzaileak.

Nekazaritza azokan parte hartuko duten erakusle kopurua zein erakusmahaien kopapenak aurreko urteetakoak izango direla esan dute, asteen, antolatzaileek: 80 mahaitik gora ipiniko dituzte, eta 09:00etatik 15:00ak arte egongo dira zabalik.

Abadiñoako San Blas egunean salgai ipiniko dituzten baserriko produktuen aniztasuna azpimarratu dute antolatzaileek:

ortuariak, ogia, barazkiak, gazta, esnea, txakolina, ezta... Askotariko salgaiak eskainiko dizkiete ekoizleek bisitariari.

Urtero bezala, San Blas azokan baserriko produktuen eskaintza zabaldu eta anitza egingo dute ekoizleek

Herriko bost abeltzainek arraza puruetako bederatzina abelburu eramango dituzte San Blas eta erakusketara

Abadiñoako ekoizleek izaten dute nekazaritza azokan parte hartzeko izena emateko lehenetasuna, eta Durangaldekoek eta gainontzeko herrialdeetakoek ondoren izaten dute aukera.

Antolatzaileek azaldu zutenenez, iaz, lehenengoz, ez zen abeltzaintza lehiaketan dirurik banatu saritan. Eta, egoera ekonomikoak bultzatuta, aurten ere horrela izango dela aurreratu dute.

Bestalde, azken urteetan bezala, Lorra kooperatibagaz elkarlanean antolatu du Abadiñoako Udalak San Blas azokako ganadu salerosketa. Urtarrilaren 27ra arteko epea izan dute abeltzainek azokan izena emateko. Iaz, 78 abere ipini zituzten salgai San Blas egunean.

Bertako ganadua

Urtero bezala, gainera, salerosketara bideraturiko karpaz gainera, abelburuen erakusketarako beste gune bat ere atonduko dute antolatzaileek. Herriko bost abeltzainek arraza puruetako abelburuak ipiniko dituzte, bertan, ikusgai: bederlatzi abelburu eramango dituzte abeltzain bakoitzak azokara. Besteak beste, frisiar behiak, behi pirinio-tarrak, Limousinak, txarolesak

eta betizuak eramango dituzte: 64 abelburu, guztira.

Aipatutakoez gainera, bestelako salgaien hainbat erakusmahai ere ipiniko dituzte San Blas egunean: haztegien 12 postu, erroskilla egileen 18, maki-neria saltzen dutenen 25 postu, eta talo eta ogitarteko egileen zazpi txosna aurkituko dituzte Zelaietara hurreratzen denak.

Gainera, eta azken urteetan bezala, Txanporta kultur etxearen ondoan ipiniko dituzte artisauak landutako salgaiak.

Idi-proben hasiera eguna

Hogeita zazpi idi pare lehiatuko dira, aurten, San Blas azokako sariketan. Iaz ez bezala, gainera, saio bi egingo dituzte San Blas egunean: bata 17:00etan eta bestea 22:00etan. Jaietako hurrengo egunetan (4an, 7an, 8an eta 9an) ere izango dira probalekuan saioak, eta 10ean izango da finala. Azken urteetan Abadiñoan parte hartu ez duen Arientza elorriarra ere Bizkaiko eta Gipuzkoako herrietako lehiakideekin jardungo da.



400 euroko saria azokako irudi onena topatzen duenari

San Blas eguneko argazki lehiaketaren bosgarren edizioa izango da aurtengoa

> MARKEL ONAINDIA

“Azoka garrantzitsuenetako bat betikotu”. Ima Zapardiez kultura zinegotziak adierazi duenez, hori da udalak argazki lehiaketagaz daukan helburua. Argazkizaleei saria eskainita, San Blas eguna inork baino hobeto islatuko dituzten irudiak lortuko dituzte. Argazki onena ateratzen duenak 400 euro eskuratuko ditu, azaldu dutenez. Bigarren sailkatuari 250 euro emango dizkiote, eta herritar onenari 150. Aurtengoa, lehiaketaren bosgarren edizioa izango da.

San Blas egunean argazkiak egin, eta otsailaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dituzte. Lehiaketan parte hartzen dutenek asko jota argazki bi entre-

gatu ahalko dituzte, 30x40 tamainako euskarrian. Errota kultur etxean eta Udal Mediatekan jasoko dituzte lanak, eta bertan aurkezteaz gainera, postaz ere bidali ahalko dituzte argazkiak. Zapardiezek lehiaketan parte hartzeko deia egin die herritarrei, San Blas argazkiak egiteko leku aproposa dela azpimarratuta: “Zaleek eta profesionalak aukera ugari izango dute argazkigintzaz gozatzeko”.

Iaz, 88 argazkilari


Ekitaldi arrakastatsua da argazki lehiaketa. Iaz, 88 lagunek aurkeztu zuten otsailaren 3an euren kamerekin jasotakoa, eta Ivan Rodriguez abadiñarra izan zen garaile. Bigarren saria Carlos de Cosek lortu zuen, eta herritarrei

begirako ohorezko saria Ignacio Condek.

Sari banaketa, 19an

Behin argazki guztiak jasota, epaileek otsailaren 19an emango dute euren erabakia. Sari banaketa ekitaldia egingo dute Errota kultur etxean, 19:00etan. Egun horretatik martxoaren 7ra arte, saritutako lanak eta epaileek aukeratutako beste batzuk ikusgai egongo dira Errotan bertan.

San Blas egunean argazkiak egin eta otsailaren 14a baino lehen aurkeztu beharko dituzte



Ivan Rodriguezen argazkiak irabazi zuen iazko lehiaketa.

Disko berriko abestiak joko ditu Ghetto taldeak

Otsailaren 1ean Kilauea eta Bad Sound Systemegaz joko du Ghetto txosnetan



Ghetto taldekoak 2007tik dabilta batera.

> M. O.

Ghetto musika taldeak disko berria kaleratuko du aste pare baten bueltan *Erolution* izenagaz. Euren bigarren lana da, eta bertan batutako abestiak zuzenean joko dituzte San Blas jaietan, otsailaren 1ean egingo den rock kontzertuan. *Ghetto-tarrekin* Kilauea eta Bad Sound System taldeek parte hartuko dute jaialdian.

Abadiño, Atxondo eta Bergarako boskote batek osatzen du Ghetto taldea. 2007tik dabilta batera, baina 2012an geldial-

Ghetto bigarren lana aterako du, eta bertan batutako abestiak zuzenean joko dituzte San Blas jaietan

dia egin zuten, taldekide bat atzerrira joan zelako. Orduan, taldekide batzuek Hertzainak taldearen tributua egiteko aprobetxatu, eta Ghertzainak taldea sortu zuten. Baina iaz, disko berria hasi ziren prestatzen,

berriro ere Ghettoekin. Unai Abaunza abeslariak azaldu du zazpi abesti edukiko dituela *Erolutionek*, Abadiñoko ikusleekin konpartituko dituztenak. Diskoa non salduko duten aurrerago esango dute, baina Abaunzak aurreratu du Interneten ere salgai ipiniko dutela. Rocka, folka eta funkaren arteko nahasketa lantzen dute Ghettoek.

Otsailaren 1eko jaialdian ez dira izango Durangaldeko bakkarrak, Kilauea ere joko du-eta. 2013ko Durangaldeko Maketa Lehiaketako irabazlea da talde hori. Bestalde, Bad Sound Systemek reggae eta hip-hop doinuak ekarriko ditu txosnagunera.

Astebururako ekintzak

Musika jaialdiaz gainera, beste zenbait ekintza ere iragarri dituzte txosnaguneari. Urtarrilaren 31n, barikuan, ardo dastaketagaz hasiko dute egitaraua, 18:30ean. Zapatuan preso eta iheslarien eskubideen aldeko bazkaria egingo dute, eta San Blas egunerako McDonald's eta Burger King hamburgesategien kontrako protesta deitu dute, 12:30ean.

Ordo pasan Sandasak!

Bagoaz Bidasak Itzila egongo da San Blas egunean

639 346 506
info@bagoaz.com
www.bagoaz.com

ileapaindegia

elebe

Iturritxo, 2 behea • 48220 Abadiño

BEATRIZ CASADO

ESTETIKA
MASAJEAK
OSTEOPATIA

Iturritxo, 2 behea (Elebe ileapaindegia)



Z E L E T A B E
Auzoa Promociones S.A.



1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak
Kalitaterik oneneko materialak

- Etxebizitza guztiek honako hauek dauzkate:
 - Sukalde modernoak behar den guztiarekin.
 - Haritzeko tarima eta barruko atek. Ateen pieza metalikoak kromatuta.
 - Horma-armairuak. Barrualdea hornituta.

Erosketa aukeradun alokairua
Etxeak salgai
Alokairu librea



Iturritxo, 7 behea, eskuma • 48220 Abadiño
Tel.:/Fax: 944 668 956

www.zeletabe.com
zeletabe@zeletabe.com

Kirola

> TXIRRINDULARITZA

“Nire ametsa eta helburu nagusia profesional mailara igotzea da”

Jonathan Lastrak (20 urte, Bilbo) hainbat Espainiako Txapelketa irabazi ondoren, Munduko Txapelketan aurrenekoen artean ibiltzea du helburu. Otsailetik aurrera Caja Rural talde nafarrarekin ariko da.



Jonathan Lastra txirrindularia Durangon.

> MAIALEN ZUAZUBISKAR

Datorren hilabetearen hasieran Holandan izango den Munduko Ziklo-kros Txapelketan parte hartu ondoren, errepidean lehiatzen hasiko da Jonathan Lastra. Hiru urtez Hirumet taldean egindako ibilbideari amaiera eman, eta datorren hilabete bukaeratik aurrera Caja Rural talde nafarreko txirrindularia izango da.

Duela bi aste Sogorben (Valentzia) jokatu Espainiako Txapelketa irabazi zenuen. Nola lasterketa izan zen? Hasieratik Jon Ander Insaustik eta biok egin genuen aurrera. Lasterketako une erabakigarria Insaustiren bizikleta aldaketa izan zen. Une horretaz baliatu nintzen bera atzean utzi eta aurrera egin ahal izateko. Orduetik aurrera erlojuaren aurkako lasterketa bat izan zen, eta helmugan 40 segundotik gorako aldea ateran nion.

Zure helburuen artean zegoen 23 urtez azpikoen txapelketa irabaztea?

Bai. Egia esanda, nire helburuetan ez zegoen txapelketa ez irabaztea. Lasterketan ez gailentzeak, ez luke esango denboraldi txarra egin dudarik, baina nire palmareserako puntu beltz bat izango litzateke. Hala ere, aurten lasterketara iaz baino presio gutxiagorekin joan naiz.

Asteburu honetan Belgikan bi lasterketatan parte hartu duzu. Zelan joan dira?

Ondo joan dira, batez ere lehenengoa. Zirkuituek hemengoan antz handia izan dute, oso lokaztuta zeuden-eta. Larunbateko lasterketan, lehenengo zortzien artean irteera lortu nuen, nahiz eta gero, lasterketak bakoitza bere lekuan jarri gintuen. Igandean, berriz, aurreko eguneko esfortzua ordaindu nuen.

Espainiako selekzioarekin Munduko Txapelketan parte hartuko duzu. Hautatuen artean egotea espero zenuen?

Bai, lau urte daramatzat txapelketa hauetan parte hartzen. Denboraldia hasi zenetik nire helburu nagusia hautatuen artean egotea zen. Azken batean, denboraldiko lasterketa garrantzitsuen da.

Pasa den urtean hamabosgarren sailkatu zinen. Aurten zein da zure helburu nagusia?

Asmoa postu hori hobetzea da. Lehenengo hamabien artean sartu nahiko nuke. Belgikarrak eta Holandarrak kontatuz gero, hamabi dira, beraz, beraien artean sartzea izugarria izango litzateke.

Holandako zirkuitua ezagutzen duzu?

Inoiz ez dut bertan parte hartu, baina seguru nago eguraldiak

asko baldintzatuko duela lasterketa. Elurra egin eta zirkuitua izoztuta egoten bada, zaila izango da bizikleta gainean ibiltzea. Niretzako hoberena lokatza egotea izango litzateke, horrela lasterketa asko gogortuko baita.

Pasa den urtean federezioak ez zizkizueten txapelketako gastuak ordaindu. Nola dago aurten kontua?

Aurten dena ordainduko digute. Iazkoa lotsagarria izan zen. Norberak ordaindu behar izan zuen guztia, eta gero, postu ona lortuz gero, beraiek eramaten zuten merezimendu guztia. Hala ere, nik zorrea eduki nuen, taldeak ordaindu baitzidan guztia.

Orain dela gutxi jakin dugu Caja Rural taldera joango zarela. Nola gertatu da fitxaketa?

Nik ez neukan aldaketarik egiteko asmorik. Baina, abendu bukaeran hizketan hasi eta akordio batera iritsi ginen. Ametsa profesional mailara igotzea da, eta ziklo-krosean kontua oso zail dagoenez, pauso hori ematea erabaki dut. Gainera, aurrera-pauso hori egiteko talde egokiena delakoan nago.

Zure helburua, ziklo-krosa eta errepidea, biak egitea da?

Nire asmoa profesionala izatea da, beraz, orain errepidean zentratu, eta ahalik eta ongien ibili nahiko nuke.

Beraz, orain arte ez bezala, hemendik aurrera errepideak hartuko du lehentasuna?

Bai, aurreko urtean ez bezala, errepideko lasterketetara presio gehiagorekin eta lehiatzeko

“

Dena dut Hirumet taldekoei eskertzeko, azken urteetan asko lagundu baitidate”

asmoz joango naiz. Ziklo-krosarekin bukatu ondoren, atsedean apur bat hartu, eta buru-belarri ekingo diot errepideko denboraldiari. Hemendik aurrera errepideko denboraldia prestatzeko bakarrik arituko naiz ziklo-krosean.

Bestalde, zein izango da zure eginkizuna Caja Rural taldean? Oraindik ez dakit. Ez dut beraiekin berbarik egin. Ziklo-kros denboraldiarekin bukatu ondoren hitz egingo dut beraiekin. Orain, ez daukat astirik horretan pentsatzeko.

Noiz emango diozu bukaera ziklo-kros denboraldiari eta noiz hasiera errepidekoari?

Aurten errepidean hasiko naizenez, otsailean bukatuko dut ziklo-kroseko denboraldia. Eta errepideko denboraldiari dagokionez, badakit denboraldia otsailaren 23an hasiko dela, baina oraindik ez dakit lasterketa horretara joan beharko dudanez edo ez.

Asko hausnartutako erabakia izan al da taldez aldatzearena?

Bai. Oro har, erabakiak hartzerako orduan asko pentsatzen dut. Gaur egun, txirrindularitzan gauzak oso zail daude profesionalentzako pasatu ezean. Badakit pausu hori eman ezean bi urtean errepideko lasterketak bukatuko zaizkidala, beraz, aukera ezin dezaket pasatzen utzi. Gainera, Hirumet taldekoek ere nik taldez aldatu izana ondo hartu dute. Azken finean, dena dut beraiei eskertzeko: azken urte hauetan taldeko guztiek asko irakatsi didate, eta baita lagundu ere. Beraien iritzia oso garrantzitsua izan da erabakia hartzeko.

AGENDA

> FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Durangoko Kulturala - Arenas
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

OHOREZKO MAILA

Iurretako - Sondika

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaietan.

BIGARREN ERREGIONALA

Ezkurdi - Iurretako B

· Zapatuan, 17:00etan, Arripasuetan.

HIRUGARREN ERREGIONALA

Zaldia B - Loiu B

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

LEHENENGO ERREGIONALA

Elorrio - Mungia

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Sasikoa - Egintza

· Zapatuan, 19:30ean, Landako kiroldegian.

MAILA GORENA

Sapuberri - Kurutzia

· Zapatuan, 17:30ean, Landako kiroldegian.

Elorriko Buskantza B - Gramol

· Zapatuan, 18:00etan, Elorriko udal kiroldegian.

Presion Break - Unta Ibarreko

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun.

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiñoako Gaztetxe - Freunde

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

BIGARREN ERREGIONALA

Elorriko Txiki - Gu Lagunak

· Zapatuan, 15:05ean, Elorriko udal kiroldegian.

Mallabia B - Biarko Gizonak

· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko udal kiroldegian.

Racing Tolosto - Saltzaileak B

· Zapatuan, 16:00etan, Landakon.

Presion Break B - Mendibeltz

· Domekan, 12:00etan, Berrizburu kiroldegian.

> SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA (gizonak)

Tabirako Baque - Zizur Ardoi

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian.

LEHENENGO MAILA (emakumeak)

Tabirako Baque - Gernika

· Domekan, 12:00etan, Landakon.

LEHENENGO ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako Baque - Astrabudua

· Zapatuan, 19:00etan, Landako kiroldegian.

LEHENENGO ERREGIONALA

Anbotopeko - Otxarkoaga

· Barikuan, 20:00etan, Tabiran.

> ARETO FUTBOLA

Elorriko Txiki lidergoari eutsi gura dio Gu Lagunaken aurka

Bihar derbia jokatuko dute Elorriko Txiki eta Gu Lagunak taldeek; Elorriko taldea aurten sortu dute eta lider dago; durangarrek sorpresa eman nahi dute



Joan zen asteburuan Gu Lagunak taldeak 1-2 galdu zuen Mendibeltzen kontrako derbia. Kepa Aginako.

> JOSEBA DERTEANO

Elorriko Txiki eta Gu Lagunak taldeek Elorriko kiroldegian, bihar, jokatuko duten derbiagaz ligako bigarren itzuliari ekingo diote. Elorriko taldeak Bigarren Erregionaleko lider postuan hartuko du zortzigarren kokatuta dagoen Gu Lagunaken bisita. Lehenengo itzulian Elorriko Txiki 1-4 nagusitu zen.

Bitxia da Elorriko taldearen istorioa. Orain urte bi taldea sortu gura izan zuen laguntalde

batek, baina gestio burokratiko guztiak egiteko astirik ez, eta Elorriko Buskantzen bitartez sortu zuten taldea: Elorriko Buskantza C. Iaz, lehenengo urtean, mailaz igotzea lortu zuten. Oro har, denboraldi googarria izan zen Elorriko klubarentzat, hiru taldek lortu zutelako mailaz igotzea. Beraz, aurten Lehenengo Erregionalean dabil Elorriko C, baina ez du zerikusirik iaz igoera lortu zuenarekin. Jokalari guztiak

berriak dira. Iaz igoera lortu zuten 13 jokalariek, aldiz, Elorriko Txiki sortu dute. Horrek esan gura du, talde sortu berri guztien moduan, berengo mailatik hasi direla aurten. Beraz, berri-

luz Elorriko Buskantza C osatzen zuten jokalariek Elorriko Txiki taldea sortu dute aurten

ro Bigarren Mailan jokatzen dabilta aurten, iaz igoera lortu ostean. Unai Zenitagoia jokalaria azaldu du horren zergatia: "Iaz igotzeko aukera izan genuen, baina baliteke hurrengo batean igoera lortu eta ezin baliatzea, goiko mailan Elorriko Buskantzen beste talde bat dagoelako. Horregatik gurago izan dugu geure taldea sortu". Iaz ligako partidu bat berdindu eta gainerako guztiak irabazi egin zituzten. Aurten, dagoeneko partidu bi galdu dituzte, baina, hala ere, lider daude. Gol askoko taldea da, hein handian Jon Heras, Mikel Landaburu, David Rua eta Endika Egurenek ate aurrean duten eraginkortasunari esker.

> Gu Lagunak, estilo bila

Badakite derbia irabaztea gaitz izango dutena, baina sorpresa emateko gogoz joango dira Gu Lagunak taldeko jokalariai Elorriora. Sailkapenean daudena baino "apur bat gorago" egotea espero zuten Julen Orbegozo jokalaria esanetan. Batetik, denboraldi honetan hainbat jokalarik lesioak izan dituzte eta horrek taldearen errendimenduan eragin du. Bestetik, taldearen izaera definituko duen jokamoldearen bila dabilta oraindik.

Zortea ere falta izan zaie batzutan. Batera zein bestera erori zitezkeen partidu batzuk galdu egin dituzte, joan zen astean Mendibeltzen kontrako derbia lez (1-2). Mendibeltzek azken minutuan sartu zuen garaipena eman zien gola.

ADITUAREN TXOKOA



Unai Zamalloa

Saskibaloia

Aurten bai?

Bidean dabilta, eta orain arteko lanak posible dela dio. Zeri buruz ari naizen hitz egiten? Tabirakoko nesken taldeari buruz.

Aurten, denboraldi berria hasi aurretik, aldaketak egon dira taldean. Jokalari berri eta gazteen aurrerapausoa eta entrenatzaile berriaren hasiera.

Jokalari gazteak nahiz eta aurreko denboraldian partidu askotan egon, aurten taldeko partaide moduan ari dira, eta aurreko urteetan egindako lanak beraien erakpen oso ona dakar. Horrekin batera, taldeko zutabe nagusi diren Marina eta Nuria Mautua, Marian Fernandez, Leire Moreno eta Alaia Berganzaren lana ere oso ona izaten ari da.

Horrekin guztiarekin batera, entrenatzaile nagusia den Jesus de Vicentek, Iñaki Sevilla eta Enric Amelleren lan eta laguntza handiarekin, taldearekin egiten duen lan ona agerian dago: altuera handiko jokalaria oso gutxiarekin defentsa ona eta gogorra egiten dute partidu osoan eta lan horrek fruitu asko ematen ditu erasoan ere. Defentsa onarekin joko arina indartzen da, eta horrek aurkariei deserosotasun eta zailtasun asko ematen die.

Orain arte hamaika garaipen eta bi porrot ditu Tabirako Baqué taldeak, eta lehenengo postutik garaipen batera dago.

Igande honetan, Gernika KESB taldearen aurka egin beharko da lana gogor.

Aupa neska! Segi gogor!

> ARETO FUTBOLA

Etxea gotorleku bihurtu du Presion Break taldeak

Partidu guztiak irabazi dituzte Berrizburun

Berrizko Presion Break taldea bigarren dago areto-futboleko Maila Gorenean. Puntu bira dute Gramol liderra. Joan zen asteburuan elkarren kontra jokatu zuten Sestaon, eta berriztarrek garaipen handia lortu zuten: 5-10. Emaitza horrek lidergotik puntu bira utzi zituen. Bihar San Ignacioko (Bilbo) Unta

Ibarrekoren bisita jasoko dute etxean. Presion Breakek aurten gotorleku bihurtu du Berrizburu, eta orain arte jokatuak zazpi partiduak irabazi ditu. Bihar irabazita, lider kokatu daitezke. Horretarako, Elorriko Buskantza B-ren laguntza behar dute, Gramol taldearen aurka jokatuko baitute Elorrioren.

> PILOTA

Durangaldeko txapelak Lekeition erabakiko dira

Gaur eta bihar bederatzi final jokatuko dituzte

Durangaldeko Pilota Txapelketako hiru final gaur, 18:00etan, jokatuko dituzte Lekeition. Kadeteetan Elorri, gazteetan Iurreta eta nagusietan Durango finalera heldu dira. Hiruek Lea Ibarra izango dute kontrario. Lehenengo final biak orekatuak izatea espero da, eta nagusietan Durango da faborito.

Zapatuan, 16:30ean, gazte mailetako sei final (maila bakoitzean bi) jokatuko dituzte; benjaminetan Iurreta C-k eta Atxondok, finalak jokatuko dituzte; kimueetan Elorri final bietan egongo da, eta Durango B batean. Azkenik, haur-kategorian Atxondo B eta Durango finalerako protagonista bi izango dira.

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK



Andra Maria kalea, 9 DURANGO Tel.: 946 815 017

Komentukale 23 behe, 5. esk.
48.200 Durango - Bizkaia
☎ 688 864 975

ZURE txokoa

info@zuretxokoa.com
www.zuretxokoa.com

DURANGON TXOKO ALOKAIRUA

enpresa-bilera **bataio**
jaunartze urtebetetze **ospakizunak**

Anboton argitaratutako EH Bilduren iritzi gutunari erantzuna

Pasa den astean Anboto aldizkarian EH Bilduk kiroldegiko kudeaketari buruzko iritzi gutuna argitaratu zuen. Egun kiroldegia kudeatzen dugun enpresa izanik, bertan eginiko kudeaketa inolako datu objektiborik gabe eta argumentu sendorik gabe kritikatu dela uste dugu eta gure kudeaketa defendatu beharrean gaude.

EH Bilduren gutunean esaten den lehenengo gezurra zenbait ikastaroren prezioa %300 igo dela da. Egia da lehenengo hilabeteetako kudeaketaren (aurreko enpresarena, hain zuzen ere) analisi sakon eta datu bilketa garrantzitsu baten ostean, eta egungo udal ordezkariekin egindako zenbait bileren ostean, kiroldegiko abonua eta tarifa sistema aldatzeko proposamena luzatu genuela. Aipatu ere, nahiz eta proposamena lehiaketan aurkeztu genuen proiektuan garatu gabe egon, gure konpromiso sendoetako bat zela. Egungo udal ordezkariekin hainbat bileraren ostean, tarifa sistema berriari forma eman eta Kirol Batzordera eraman zen, gainerako talde politikoez egaratu, baloratu eta alde edo kontra bozkatu zezaten. Batzorde horretan ez zen kontrako botorik jaso; EAJk eta PPK alde bozkatu zuten eta EH Bildu abstenitu egin zen. Horrela, abonua sistema berria onartu, eta 2013ko urriaren martxan jarri zen.

EH Bilduren lehenengo keaxaren harira, erabat faltsua da zenbait ikastaroren prezioa %300 igo dela. Ikastaro batzuen prezioa zertxobait igo bazen ere, beste zenbaiten prezioa jaitsi egin zen. Baina, daturik gabeko informazioa zabaltzea erraza izanik ere, guk ez dugu berdin jokatu eta hona hemen datuak: aurreko tarifa sistemarekin Pilates ikastaroan izena ematen zuen abonatu batek hiruhilero 87,19€ ordaintzen zituen, eta oraingo tarifa sistemarekin, abonatuak hiruhilero 75,00€ ordaintzen ditu ikastaroarengatik. Lehen abonatuak abonatu izateagatik urtean 106,51€ ordaintzen zituen (igerilekura soilik sartzeagatik), orain, aldiz, abonua integratuta egiteagatik (igerilekura eta gimnasia sartzeko aukera), urtean 175,74€ ordaintzen dira. Beraz, Pilates ikastaroko ikasle batek aurreko sistemarekin urtean guztira 368,08€ ordaintzen zituen (abonua + 3 hiruhilekoa), eta orain, aldiz, 400,74€. Urteko tarifa 32 euroan igo da bai, baina gimnasia sarbidea ematen da, lehen ez zegoena. Uretako ikastaro baten adibidea jarritz gero, tarifa sistema zaharrarekin, abonatu batek hiruhilean 47,19€ ordaintzen zituen; orain berriz, 40,00€ ordaintzen ditu; eta bi kasuetan abonuen prezioa berdina da. Beraz, zenbait ikastaroren prezioa gutxitu egin dela argi dago. Kiroldegiko abonatuak ez diren kasuan, aldiz, eta Pilates ikastaroaren adibidearekin jarraitzeko, sistema zaharrarekin 121,82€ ordaintzen ziren hiruhilero, eta, orain, berriz, 130,00€. Horretaz guztiaz gain, lehen ikastaroetan parte hartzeagatik ordaindu behar zen matrikula ezabatu da. Beraz, datuok argi geratzen da EH Bilduk bere idatzian aipatutako %300eko igoeratik urrun gelditzen dela errealitatea.

Baina goazen abonua sistema berriaren ezaugarri nagusienak azpimarratzera. Egungo sistemak herritar guztien kiroldegirako sarbidea erraztea bilatzea du helburu. Horretaz gain, kiroldegia osatzen duten espazio guztiak erabili ahal izateko baldintza berdintasuna bilatzen du. Orain arteko sistemak, igerilekua erabili nahi zutenek, urteko 106,51 euro ordaintzen zituzten. Baina kiroldegiko

gimnasioa erabili nahi zutenek, aldiz, 106,51 euroko kuotaz gain, hiruhileko bakoitzeko 87,19€ ordaindu behar zituen (kasurik hoberean; izan ere, kuota hau garestitu egiten zen hileroko ordainketa egiten bazen edo igerilekuko abonatuak ez bazina; hots, kiroldegiko gimnasioa erabili nahi zuen herritar batek urtean 455,27 euro ordaindu behar zituen. Abonua sistema berriarekin urtean 175,74€ ordaintzen dira. Hau da, lehen ordaindu behar zenaren %38a. Zergatik ordaindu behar zuen gimnasioa erabili nahi zuen herritar batek soilik igerilekua erabili nahi zuen batek baino 4 aldiz gehiago, kiroldegia mantentze gastu handienak igerilekuak sortzen dituenen?

Beraz, abonua sistema berriak herritar guztien behar eta nahiak asetzera du helburu, eta, beraz, kiroldegia erabili nahi duten guztiei sarrera erraztea.

Baina datu objektiboez jarraituta, kudeaketa hasi genuen egunean kiroldegian 764 bazkide soilik zeuden. Urriaren egindako abonua sistema berriaren ostean, gaur egungo abonatu kopurua 1.217koa da. Abonua sistema berria eta kiroldegiko kudeaketa berriak harrera ona izan duenaren seinale.

EH Bilduk zabaldu dituen keaxari jarraiki, Elorrioko Udalak zenbait herritarrekiko aplikatzen dituen hobarietan gure enpresak ez du inolako zerikusirik, egungo Gobernuaren erabakiak dira. Aipatu, jubilatuei aplikatzen zaizkien hobariez gain, jakin badakigula guri horrela komunikatu baitzaigu, udalak 18 eta 23 urte bitarteko gazteei ere beste hobari bat aplikatuko diela.

Hobarietan jarraituta, badira enpresak kaleratu dituen beste zenbait hobari. Horiak, ordea, EH Bilduk esaten duenaren kontra, ez dira elkarte, klub edo enpresa bateko kideei bideratutako hobariak; hobariak elkarte, klub edo enpreseki luzatzen zaizkie, eta ez norbanakoei. Hau horrela, zentzuzkoa da hobaria aplikatu ahal izateko betebeharrak elkarte, klub edo enpresek egin behar izatea, beste edozein diru-laguntza edo hobari jaso ahal izateko kasuetan gertatu ohi den bezala. Dena den, elkarte, klub edo enpresa bakoitzak hartu beharreko erabakia da hobaria eskuratu ahal izateko baldintzak betetzea edo ez. Azkenik, aipatu, edozein motatako hobari edo diru-laguntzetan gertatzen den bezala, beharrezkoa dela baldintza zehatzak espezifikatzea, tranpak eta gutxi batzuen jokatibide desegokiak ekiditeko. Aitzitik, ez litzateke batere justua izango aldiro beraien kuota zintzoki ordaintzen dutenentzat.

Honako gerra hau politikoa dela ulertzen badugu ere eta gure enpresa horretan sartuko ez bada ere, ez dugu ulertzen daturik gabeko argudio faltsuak zabaldu izana eta soilik informazio osatugabea kaleratu izana. Ez dugu ulertzen orain arte gimnasioa erabiltzeagatik 455,27 euroko kuota ordaindu behar izateagatik keaxarik aurkeztu ez izana, eta orain 175,75 euro ordaindu behar izateagatik keaxatzea. Ez dugu ulertzen, klub, elkarte eta enpresentzat hobaririk ez zegoen bitartean inolako keaxarik ez zabaltzea, eta orain zenbait hobari kaleratzeagatik iskanbila hau sortzea. Ez dugu ulertzen herritar guztien kirol praktika sustatu eta indartzeko elkarlana ez egitea, eta kontrari, daturik gabeko informazioa zabaltzea. Bultzatza dezagun denen artean Elorrioko kirol praktikaren sustapena eta hobekuntza.

BPXport Kirol Zerbitzuak SL**SEI HANKAKO MAHAIA****URDASPAL BOLINAGA**

Bildu

**Garai ibiltariak bizi ditugu**

Garai ibiltariak bizi ditugu, eta ez da txantxa. Gaurkoan ez nator zuengana, kapitalismoak eta globalizazioak eraginda, beti presaka ibili behar horren kontra berba egitera, beste baterako utziko dugu hori. Ezta gazteek, etorkizuna ukatzen dien lan merkatu honek behartuta, herritik alde egitea buruan dutela salatzera ere... Ez, horrek sortzen ditan amorruak mila eta seiehun karaktere baino gehiago behar ditu, burmuinetik teklaturako tartean esan gabeko hitzik gera ez dadin.

Ibiltariak direla diot, bizi ditugun momentuetan, pausoen gaineko obsesioa gure irrati, telebista, aldizkari eta abarren jabe egin delako. Pausorik eman ezan ez dagoela zereginik; pausoa pausoa dela, baina txikiegia; aurrean duguna pausoka baino jauzika ibili beharko litzatekeela besteen pare egoteko... Pausoa ez dela ezer; baina pausoka ibiltzea beharrezkoa dela, astiro bada ere, ibiltzea; ala ez?

Pausorik ez emateak, edo hobe esanda, ezin emateak, badu jauzi baten besteko balioa. Egun eta hogeita hamar mila pertsona ezin pausorik eman Bilboko kaleetan. Duintasun jauzia izan zen hori. Inposaketa judicial eta politikoa gainetik pasa zituen, alderdiak eta blokeak, dispersioaren kilometroak hustu zituen jauzia. Bilbon ezin zen pausorik eman irribarreek, elkarren ondoan jarrita, ez zutelako beste ezertarako tokirik uzten.

Eta hau da, nire uste apalean, pauso eta kilometroen metafisika absurdo honetan tertulia guztiei gainezka egiten dien errealitatea: ez da jaio kaleak pausorik ezin emateraino betetzen duen herriari etorkizuna ukatuko dion epaile, errege, presidente edo lege erre-presiborik.

Laguntzaileak:

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

**anboto**
komunikabideak 

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2014ko urtarrilaren 24a,
12. urtea - 530. alea

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Administrazio burua:

Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Joseba Derteano.

Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Maialen Zuazubizkar.

Maketazioa: Eider Alberdi.

Zuzentzaileak:

Jon Ander Urkiaga.

Argazkilariak: Kepa Aginako, Zalao Fuertes.

Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb., 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIJUAN

DURANGO

- Logela bakarrek, 2 logelako eta 3 logelako etxebizitzak alokairuan.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- DURANGO. ARTEKALEA: 8 etxebizitza eraikitzen hasi gara. Logela 2 eta logela bakarrek. Trastelekuarekin. 140.000tik aurrera.
- LEKEITIO: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerilekua eta frontoia.
- DURANGO. APARTAMENTUA: Logela 2, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berrizteko. 114.000.
- DURANGO. ERDIALDEAN: Logela 2, komun 1 eta sukalde amerikarra guztiz jantzia. Etxebizitza berria eta guztiz jantzia.
- ABADIÑO. ITURRITXO: Logela bakarrek apartamentua. Sukalde amerikarra egongelarekin, komuna eta esekitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trasteleku.
- DURANGO. ASK. ETORB.: 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trasteleku eta garajea.
- DURANGO. FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, sukaldea, office-a, komun 2 eta egongela. Garajea eta ganbara.
- DURANGO. ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizteko. Inguru onean kokatua. Prezioa zehazteke.
- DURANGO. ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO: Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.
- ATXONDO. 3 logela, komun 2, sukaldea esekitokiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trasteleku. Berria ematen du.
- ZALDIBAR. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trasteleku.

LUR SAILAK SALGAI

- BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Landa ederra eta sarbide ona.

MATIENA-ABADIÑO

- MATIENA-ABADIÑO. 2.000 m2-ko lursaila. Laua eta fruta -arbolekin.
- IURRETA. 5 hektareako lursaila. Abehete bat egiteko aukera dago. Sarbide ona.
- OLETA-OTXANDIO. 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abehetea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.
- ABADIÑO. Bi familiarentzako etxebizitza eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai. Aurrez aurreko informazioa.
- DURANGO. Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.
- ZORNOTZA- EUBA. 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati. Bakoitzean familiarentzako etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.
- ZORNOTZA- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila zoragarria. Dena lurzati berean.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

- DURANGO. Eraikin atxikia. Guztiz jantzia. Erdi berria. Estreinatzeke.
- BERRIZ - MURGOITIO. Nekazal turismorako baserri zoragarria. Ikuspegi ederrak.
- BERRIZ- EITUA. Aurrealdean arku duen baserri ederra. Bi familiako etxebizitza egiteko aukera.
- ETXEBARRIA - ITURRETA. 5 has baino gehiago duen baserri ikusgarria. Lur zati bakarrean eta baserria inguratzen.
- MUXIKA. Berroja auzoa. 2 baserri salgai. 8 hektareetako lursaila inguruan. Biak batera eta banatuta erosteko aukera.

TXALETAK

- DURANGO-ERRENTXU: Salgai. Adosatuk, etxebizitza bakarrek eta bikoak.
- ABADIÑO, OTXANDIO, etab.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ANDRA MARIA: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3 logela, 2 komun eta egongelatxo.
- ANTISO ESTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
- ASKATASUN ETORBIDEA: halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- BARRENKALEA: Halla, sukaldea, egongela, komun eta 2 logela. Ganbara.
- EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.
- F.J. ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
- JUAN ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
- MURUETORRE: Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trasteleku.
- SAN AGUSTIN: Halla, sukaldea, 5 logela, egongela eta 3 komun.
- SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
- UNDATORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
- ABADIÑO-ARLOZABAL: Halla, egongela, sukaldea, logela 2 eta komun 2. Terraza handia.
- ABADIÑO-FERIALEKUA: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoi handia. Ganbara eta garajea.
- ABADIÑO-MATIENA: Halla, sukaldea, egongela 2/3 logela eta komuna. Ganbara.
- ABADIÑO-MUNTSARATZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Egoera onean. Igogailua.
- BERRIZ: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trasteleku.
- BERRIZ: Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta komun 2. Balkoia. Erdi jantzia. Garaje itxia eta trasteleku. (Duplexa).
- BERRIZ: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Balkoi 2. Ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Garajea.
- ELORRIO: Berreraikitzeke etxea, lursailduna.
- IURRETA: halla, egongela-jangela, sukalde jantzia office-arekin, despentsa, 3 logela eta komuna. Terraza itxia eta trasteleku. Guztiz berriztua.
- IURRETA-ARRIANDI: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna.
- MAÑARIA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 12 m2-ko trasteleku. Oso egoera onean. Igogailua. Eguzkitsua.
- MARKINA: Iruzubieta. 55.000 m2-ko lursaila erdi berriztatutako eraikinarekin.
- BASERRIA LUR EREMUAREKIN SALGAI MENDATAN ETA BERRIZEN.
- MAÑARIAN ADOSATUAK SALGAI.

BESTE ESKAINTZA BATZUK BULEGOAN

ETXEBIZITZAK SALGAI

EUBA



- San Miguel auzoa. 2.650 m2-ko lursaila. Guztiz laua. Etxebizitza familiabakarria eraikitzeko baimenarekin. Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak. Ondo komunikatuta. **180.000€.**

EUBA



- Arkotza auzoa. 3.500 m2-ko lursaila. Laua, kokaleku politean, eta inguruan beste baserri eta txalet batzuk ditu. Ereku eguzkitsua eta zabala, eta familiabakarrek etxebizitza eraikitzeko baimena dauka. Oinarrizko proiektua barne. **179.500€.** Prezio negoziagarria.

DURANGO



- Sasikoa. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Igogailua. Bizitzaren sartzeko moduan. **160.000€.**

MATIENA



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Berogailua eta ur beroa gas naturalarekin. Igogailua. Balkoi handia eta Durangalde guztiko mendietara ikuspegia. Ganbara. Bizitzaren sartzeko moduan. **160.000€.**

ABADIÑO



- Etxebizitza bakarria herri erdian. 85 m2-ko 2 solairu eta etxabe estalia. **139.000€.**

www.inmoduranguesado.com

EROSI ALOKAIJUAN

- DURANGO: 600€ hilean. Seinalea: 6.000€. Etxebizitza erostea erabakiz gero, ordura arte alokairuaren bidez ordaindutakoa deskontatuko da. 3 logela eta komun 2. Terraza. Berogailua, gas naturala, ganbara eta garajea.
- IURRETA: 400€ hilean. Seinalea: 3.600€. Etxebizitza erostea erabakiz gero, ordura arte alokairuaren bidez ordaindutakoa deskontatuko da. 3 logela, egongela handia eta komuna. Jantzia. Berogailua. Berriztua.

AUKERA

- ARAMOTZ: 3 logela. Eguzkitsua. Berogailua. 115.000€.
- ZALDIBAR: Erdigunean. 3 logela. Berriztua. Terraza. Berogailua. Eguzkitsua. 126.000€.
- BARRENKALEA: 3 logela eta egongela. Berriztua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 156.000€.
- DURANGO: Erdigunean. 105 m2. 3 logela eta komun 2. Ganbara eta garajea. 225.000€.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- SASIKOA: 3 logela, komuna eta egongela. 139.000€.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komuna, egongela eta sukalde esekitokiarekin. Ganbara eta 2 autorentzako garajea. 247.600€.
- FRANTZISKO IBARRA: 3 logela, komun 2 eta egongela handia. Ganbara eta garajea.
- SAN IGNAZIO: 105 m2. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. 260.000€.
- F.J. ZUMARRAGA: 85 m2. 3 logela eta egongela terrazarekin. Eguzkitsua. Igogailua. 154.500€.
- ERROTARITXUENA: Berriak. Logela 1 edo 2, eta sukaldea. Esekkitokia. Terraza. Eguzkitsua.
- SASIKOA: 3 logela eta komun 2. Terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. 258.450€.
- MATIENA: Trañabarren. 3 logela eta komun 2. Terraza. Eguzkitsua. 185.000€.
- IURRETA: Bidebarrieta. 3 logela eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. 186.500€.
- DURANGO: Berriztua. Logela 2, sukaldea office-arekin eta egongela. 138.000€.
- MATIENA: 60 m2. 3 logela. Ganbara. 108.000€.
- PLATERUEN PLAZA: 2 logela. Ikuspegi ederra. 183.000€.
- ATXONDO: 90 m2. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta despentsa. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. 186.000€.
- TXIBITENA: 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. Sukalde eskegitokiarekin. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra. 266.300€.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Erdi berria. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Trasteleku eta garajea. 270.400€.
- BERRIZ: Txaleta. 365 m2. Estreinatzeke. 1.270 m2-ko lursaila.

GARAJEAK SALGAI

- IBAIZABAL: Aukera.
- DURANGO: Itxia. 15.000€.
- SAN FRANZISKO: Itxia. 25.000€.
- INTXAURRONDO: Itxia.
- SAN INAZIO: Itxia. 21.000€.
- ABADIÑO-MUNTSARATZ: Itxia
- SASIKOA: 18.000€.

LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIJUAN

- J.M. ALTUNA: 45 m2. Egokitua. 550€.
- ABADIÑO: Muntsaratz. 86 m2-ko lonja. Alokairuan.
- ARTEKALEA: Egokitua. 180€.

www.inmoetxetxo.com

Bosgarren edukiontzia eta etxeko konpostajea indartuko dute Abadiñon eta Iurretan

Amankomunazgoak informazio guneak, tailerrak, ikastaroak eta batzarrak antolatu ditu herritar eta ekoizleekin bosgarren edukiontzia eta etxeko konpostajearen kanpainaren barruan; helburua hondakin organikoa eta gainerako hondakinak bereiztea da

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak proiektu pilotu bat abiarazi du Iurretan eta Abadiñon. Ekimen horrek bi helburu ditu: batetik, bosgarren edukiontzia edo edukiontzi marroia jartzea hiriguneetan; eta, bestetik, landa eremuetako etxeetan konpostatzeko sistema martxan jartzea. Informazio eta sentsibilizazio kanpaina abiatu dute, herritarrek eta hondakin ekoizle txiki eta handiek ekimenaren berri izan dezaten. Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatu du proiektua.

Bosgarren edukiontzia

Edukiontzi berriaren inguruko informazioagaz Amankomunazgoak blog bat sortu du. Gainera, kontsultak telefonoz eta posta elektronikoko bidez egiteko aukera eskainiko dute. Kale eta plazetan informazio guneak zabalduko dituzte eta informazio saioak ere antolatuko dituzte.

Kanpainen parte hartzea borondatezkoa da. Ekimenagaz bat egiten duten familia eta ekoizleek behar duten material guztia doan jasoko dute. Helburu nagusia hondakin organikoa eta gainerako hondakinak bereiztea da.

Bosgarren edukiontzian edo edukiontzi marroian, hondakin hauek sar daitezke: kozinatu ez ditugun lekaleen,

fruituen, barazkien eta pasten hondarrak, landareen hondarrak, eta fruituen hezurak. Papera eta paperezko ahozapi zikinak ere sartu daitezke. Edukiontzi horretan ezin dira sartu haragi, arrain eta gazta hondarrak, arrautza oskolak, animalientzako janaria, lurra, pixoiha-lak eta zigarro-puntak.

Etxeko konpostajea

Etxeko konpostajearen inguruko kanpainarekin lorategi edo lurra duten etxebizitzetan konpostajea bultzatu gura du Amankomunazgoak. Edukiontzi ma-

Edukiontzi marroietan ez bezala, etxeko konpostajeak edozein hondakin organiko onartzen du, bai freskoak, bai kozinatutakoak

rroietan ez bezala, etxeko konpostajeak edozein hondakin organiko onartzen du, bai freskoak, bai kozinatutakoak. Sistema horri esker, hondakin organikoak etxean tratatu daitezke, eta lorategietan zein ortuetan erabiltzeko konposta da horren emaitza.



ABADIÑOKO EKINTZAK			
DATA	ORDUA	TOKIA	BATZAR MOTA
01/29	18:30-20:00	Errota Kultur Etxea	AUTOKOMPOSTA informazio-batzarra
01/31	18:30-20:00	Astola Etxea	AUTOKOMPOSTA informazio-batzarra
02/05	10:30-13:30	Merkatua izaten den tokian, Perulanda kalea	5. EDUKIONTZIA informazio-gunea
02/12	19:00-20:00	Errota Kultur Etxea	5. EDUKIONTZIA partaidetza foroa
02/19	19:00-20:00	Errota Kultur Etxea	AUTOKOMPOSTA tailerra
02/23	11:30-14:30	Matienako elizaren inguruan	5. EDUKIONTZIA informazio-gunea
02/26	19:00-20:00	Errota Kultur Etxea	5. EDUKIONTZIA partaidetza foroa
03/05	19:00-20:00	Errota Kultur Etxea	AUTOKOMPOSTA tailerra
03/12	19:00-20:00	Errota Kultur Etxea	5. EDUKIONTZIA partaidetza foroa

IURRETAKO EKINTZAK			
DATA	ORDUA	TOKIA	BATZAR MOTA
01/27	18:30-20:00	AmezketakoTxokoa	AUTOKOMPOSTA informazio-batzarra
01/28	18:30-20:00	Orozketako Txokoa	AUTOKOMPOSTA informazio-batzarra
01/30	18:30-20:00	Ibarretxe Kultur Etxea	AUTOKOMPOSTA informazio-batzarra
02/06	10:30-13:30	Merkatua izaten den tokian, Dantzari kalea	5. EDUKIONTZIA informazio-gunea
02/13	19:00-20:00	Ibarretxe Kultur Etxea	5. EDUKIONTZIA partaidetza foroa
02/17	19:00-20:00	Ibarretxe Kultur Etxea	AUTOKOMPOSTA tailerra
02/21	18:00-21:00	Dantzari kalea	5. EDUKIONTZIA informazio-gunea
02/27	19:00-20:00	Ibarretxe Kultur Etxea	5. EDUKIONTZIA partaidetza foroa
03/03	19:00-20:00	Ibarretxe Kultur Etxea	AUTOKOMPOSTA tailerra
03/13	19:00-20:00	Ibarretxe Kultur Etxea	5. EDUKIONTZIA partaidetza foroa



ABADIÑOKO UDALA



IURRETAKO UDALA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

AGENDA

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Urtarrilaren 30ean, 20:00etan,
Durangoko Plateruenean

Niko Etxartekin

Datorren egunean egingo dute 2014. urteko lehenengo Kantulagun saioa, Durangoko Plateruenean. Niko Etxart abeslari zuberotarra gonbidatu dute, 20:00etan hasiko den kantuzaleen saioa gidatzera, urtea lagunartean eta kantuan abiatzeko.

Antzerkia

:: BERRIZ

Urtarrilaren 31n, 18:00etan,
Elmer elefantea, Kultur
Etxean.

:: DURANGO

Urtarrilaren 25ean,
20:00etan, **Guernica 1913**,
San Agustin kulturagunean.

Urtarrilaren 31n,
20:00etan, **'Con los pies en
las nubes'**, San Agustinen.

:: ELORRIO

Urtarrilaren 31n,
22:00etan, **Emaztegiaren
semea**, Arriolan.

Erakusketa

:: ABADIÑO

Urtarrilaren 30era arte,
**Jesus Monteroren margo-
lanak**, Doherty's pubean.

:: DURANGO

Otsailaren 2ra arte, **Iñaki
Mendizabal Elordiren
argazkiak**, Museoa.

:: ELORRIO

Urtarrilaren 31ra arte,
**Luis Madinaren Arriolako
ikuskizunen argazkiak**,
Iturri kultur etxean

Lehiaketa

:: IURRETA

Urtarrilaren 24ra arte aur-
keztu daitezke lanak
**Iurretako XI. Literatur
Lehiaketara**. Liburutegian
bertan edo 'biblioteca@iur-
rreta.net' helbidean aurkez-
daitezke lanak.

Musika

:: DURANGO

Urtarrilaren 24an,
20:30ean, **Lokaletik At:
Baghdad + Amorrú**,
Plateruenean.

Urtarrilaren 25ean,
20:30ean, **Tributo Gaua:
Exkissitos + Ready Aim Fire**,
Plateruenean.

Urtarrilaren 30ean,
20:00etan, **Kantulagun
(Gonbidatua: Niko Etxart)**,
Plateruenean.

Dantza

:: DURANGO

Urtarrilaren 26an,
18:00etan, **AIKO erromeria**,
Plateruenean.

Solasaldia

:: DURANGO

Urtarrilaren 29an,
18:00etan, **Marmarrean
(Gaia: kooperatibismoa)**,
Plateruenean.

Kontalaria

:: ABADIÑO

Urtarrilaren 25ean, **Egoitz
Etxebarria**, Errotan.

:: DURANGO

Urtarrilaren 25ean,
12:00etan (3 eta 5 urte-
koentzat eta 12:30ean
6 urtetik gorakoentzat),
Oihana Etxegibel, Udal
Bibliotekan.

Filma

:: BERRIZ

Urtarrilaren 29an,
20:00etan, **The Segovia
Big Band**, Kultur Etxean.

Ikastaroa

:: DURANGO

Urtarrilaren 24an hasita,
'Humanitates'. Izen ematea,
Arte eta Historia Museoa.

Bertsokak

:: BERRIZ

Urtarrilaren 24an,
21:00etan, **Maialen Lujan-
bio eta Unai Iturriagagaz
bertso afaria**, eskolako
jantokian.

Berbaldia

:: ELORRIO

Urtarrilaren 24an,
19:00etan, **Goiener
kooperatibari buruzko
berbaldia**, Iturri kultur
etxean.



:: DURANGO | ZUGAZA

El lobo de Wall Street

Zuzendaria: Martin Scorsese

- barikua 24: 22:00
- zapatua 25: 19:00
- domeka 26: 20:30
- astelehena 27: 20:30

12 años de esclavitud

Zuzendaria: Steve McQueen

- barikua 24: 19:30
- astelehena 27: 18:00

La gran belleza

Zuzendaria: Paolo Sorrentino

- eguena 30: 20:30

2. ARETOA

Agosto

Zuzendaria: John Wells

- barikua 24: 19:30/22:00
- zapatua 25: 19:00
- domeka 26: 20:30
- astelehena 27: 18:00

Ernest eta Celestine

- zapatua 25: 17:00
- domeka 26: 16:30

:: ELORRIO | ARRIOLA

La mejor oferta

Zuzendaria: G. Tornatore

- zapatua 25: 22:30
- domeka 26: 20:00
- astelehena 27: 20:00

Futbolín

Zuzendaria: J.J. Campanella

- domeka 26: 17:00

:: ZORNOTZA

A propósito de Lewyn Davis

Zuzendaria: Joel eta Ethan Coen

- zapatua 25: 19:30/22:30
- domeka 26: 20:00
- astelehena 27: 20:15

Lluvia de albóndigas

Zuzendaria: Cody Cameron

- zapatua 25: 17:00

URTARRILEKO AGENDA

24	IPIUIN KONTALARIA Iurretako Herri Biblioteka 17:30 3-4 urte bitartekoak, heldu batez lagundurik 18:00 5 urtetik gorakoak
25, 26	IURRETAKO TXIRRINDULARI ELKARTEA 10:00 Hainbat libilbide (65 - 70 km)
25	EMAKUMEEN BIRA ZIKLISMO K.E Velódromo de Trapaga 10:00 Pista topaketa BAKIXAKO JAI BATZORDEA 19:00 Asto probak - Juan Jose Azula eta Anton Jaiori omenaldia 22:00 Erromeria Luhartz taldearekin
26	BAKIXAKO JAI BATZORDEA 12:00 Meza Iurretako korduak abestuta Jarraian, Iurretako Mikel Deuna dantza taldea 13:00 Bertsolariak: Elorza, Iturriaga eta Abasolo
27	EMAKUMEEN LITERATUR TAILERRAK Iurretako Herri Biblioteka - Gizarte Ongizatea 18:15 Emakumeen literatur tailerrak "Escritoras Norteamericanas del siglo XIX"
28	MADALENAKO ALARGUNAK Ibarretxe kultur etxean 18:00 "Alimentación consciente" ikastaroa
31	HELDUENTZAKO IPIUIN KONTALARIA Iurretako Herri Biblioteka 20:00 Virginia Imaz: "Sortilegio"



Urtarrilaren 31n, 22:00etan, **Elorriko Arriolan**

Emaztegiaren semea

Gabi Losadak zuzendu du Campanellaren 'El hijo de la novia' filmaren antzerkirako egokitzapen hau. Asier Hormaza, Sara Cozar, Kandido Uranga, Iñake Irastorza eta Mikel Laskurain aktore ezagunek jarduten dute komedia hau oholzatik eskaintzen.

> ZORION AGURRAK

✉ zorionak@anboto.org
eguzteteneko 14:00ak arteko epea



> **Libe Arriolak** bost urte egin ditu gaur. Zorionak etxeko guztien partez. Zorionak Lili.



> Bost kandela enkargatzeko esan dizugu, baina ez Perales lez 'Un velero llamado libertad'. Urte bakoitzeko belaontzi bat jarriko duzu?



> Domekan, **Unai**k 19 urte bete zituen. Zorionak! Gogoratu juerga bat zor deusugula! Musu potolo bat lagunerekin partez!



> Aste honetan ospatu dugu **Garazik** lau urte haundi bete izana. Zorionak polita, eta musu haundiak etxekoekin partez.



> **Koldok**, gure txapeldunak, sei urte bete zituen urtarrilaren 16an. Zorionak etxeko guztien partez, bereziki lehengusu eta lehengusiniaren parte!



> Urtarrilak 22an **Jasonek**, neska eder honek, zazpi urte bete ditu. Zorionak etxeko guztien partez, batez ere txikien partez.



> **Haizeak** urteak egin zituen astelehenean, urtarrilaren 20an. Zorionak eta marrubizko muxu potolo bat etxekoekin partez!



> Etorri neska, badaukat Vespa! Unai bere urtebetetzera gonbidatzen zaitu. Zorionak Matienako jendearen partez eta ondo pasa!



> Zorionak **Oihanetxo!** 22 mosu hippie, handi eta belarri tirakada beti edozertarako zure ondoan edukiko dozuzen kuadrillako sorginen partez!



> Aita, ama eta Helenen partez zorionak gure etxeko sorginari!



> Urtarrilaren 26an urteak betetzen ditu **Laia Arrieta Eguenek**. Zorionak, bost atzamar, bost mila zorion, etxeko guztien partez!



> **Inharrek** zazpi urte beteko ditu gaur. Zorionak eta musu handi bat Ibon, Rakel eta Eiderren partez.



> Aupa bikote! **Igatx** eta **Uxar** trikitilari famatuaren urteak oraintxe izan dira eta etxekoekin partez musu erraldoi pila bana.



> **Elenek** lau urtetxo bete ditu. Zorionak printzesa! Musu handi bat familiaren partez, eta ona izaten jarraitu!



> **Hodei Puente Zubillagak** hamaika urte egingo ditu gaur. Zorionak ama eta aitaren partez.



> Neska polit honek urtarrilaren 27an 8 urte egin dauz. Familia guztien partez zorionak **Jare!**

Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383



> Zorionak **Garazi Areitio!** Hamabostean behin zotz egin dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu, lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

> BOTIKAK

- BARIKUA, 24**
09:00-09:00
• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
09:00-22:00
• **Jaio-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)
- ZAPATUA, 25**
09:00-09:00
• **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
09:00-13:30
• **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
• **Bazan Diaz** (Uribarri 5 - Durango)
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
• **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
• **De Diego** (Intxaurrondo 22 - Durango)
• **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
• **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
• **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
- DOMEKA, 26**
09:00-09:00
• **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
- ASTELEHENA, 27**
09:00-09:00
• **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
09:00-22:00
• **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
- MARTITZENA, 28**
09:00-09:00
• **Etzebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
- EGUZTENA, 29**
09:00-09:00
• **Irigoien** (Bixente Kapanaga 3 - lurreta)
09:00-22:00
• **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)
- EGUENA, 30**
09:00-09:00
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)

> TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak 112
Gurutze Gorria **94 681 09 49**
Osakidetzak **94 600 72 00**
Ertzaintza **94 466 93 00**

> GARRIAOAK

- Euskotren **902 54 32 10**
Bizkaibus **94 448 40 80**
Pesa **902 10 12 10**
Continental Auto **945 286 466**

> TAXIAK

- Abadiño **94 681 44 70**
Matiena **606 459 988**
Durango geltokia **94 681 10 01**
Elorrio geltokia **94 682 00 40**
J.L. Uriarte **670 402 002**
I. Estebez **670 678 273**
M. Galeano **670 409 330**
lurreta taxi auzunea **688 618 690**
Berrizko auzo taxia **620 022 800**

> EGURALDIA

8° 11° ZAPATUA		6° 13° DOMEKA	
5° 8° ASTELEHENA		3° 11° MARTITZENA	

> AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA



Abadiño
(Traña-Matiena)
Eguaztetenan
10:00etatik aurrera
Durango
Zapatu goizetan
Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga **0,80 euro**
- Letxuga haritz hostoa **1 euro**
- Azelga **2 euro/kg**
- Espinaka txorta **1,20 txorta**
- Berakatz freskoa **1,50 txorta**
- Ilarrak **6 euro/kg**
- Tomate kontserba **3,90 euro/potea**
- Arrautzak **3,80 euro/dz**
- Idiazabal gazta **17 euro/kg**
- Gari integraleko ogia **3,30 euro**

FERNANDO TORRECILLAS | Diseinatzaile grafikoa | 48 urte, Berrizen bizi da

JOXE GARAIZABAL

Irakaslea



“Mary elefantearen eta idien desafioak publizitate handia egin zion Berrizi”

Bazen behin Mary izeneko elefante bat idi pare baten kontra leihatzen zena Berrizko probalekuan...

> AMAIA UGALDE

Ipuinera eroan du Fernando Torrecillasek Berrizen 1963ko San Antonio jaietan gertatutakoa. Eduardo Urzelai berriztarrak zirkuko elefante bat eraman zuen Berrizko probalekura idiekin nor baino nor lehiatzera. ‘Apostua’ ipuinean berrinterpretatu du Torrecillasek egun berezi hura. Gaur aurkeztuko du liburua Berrizko Kultur Etxean, 19:30ean. Erakusketa ere antolatu dute bertan, apustu eguneko argazki eta egunkarietako kronikekin.

Zelan otu zitzaizun Mary elefantearen istorioa ipuinerara eroatea?

Ni sortzez donostiarra naiz, eta duela hamar urte etorri nintzen Berrizera. Olakuetara joan, eta probalekuan elefantearen horma-irudia ikusi nuen, eta orduantxe hasi zitzaidan jakinmina. Toki Ona tabernan ere bazegoen argazki handi bat, eta galdezka hasi nintzaien bertako lagunei. Esan zidaten desafio bat egon zela Mary elefantearen eta idi pare baten artean. Buruan geratu, eta ipuin bat egitea otu zitzaidan. Istorioa hor zegoen, baina aspaldikoa zen, eta, gainera, argazki gutxi zeuden.

Orduko egunkarietan kronikak ere idatzi zituzten. Probaren antolatzailea Eduardo Urzelai izan zen, eta bere ondorengoak-edo arduratu ziren Urzelaiaren gaineko webgunea

egiteaz. Materiala hor dago, argazkiak, egunkarietako albisteak... Baina gaia modu serioan landuta ikusten nuen, eta esan nuen: zergatik ez kontatu umeen atseginerako? Agian

ume askok ez dute istorioa eza-gutuko, edo jakingo dutezer edo zer aitatik-edo kontatu dielako. Beraz, umeentzako gauza alai bat egitea eta istorioa berrinterpretatzea otu zitzaidan.

Ipuinean Gari izeneko mutiko bat da hezitzaileari erronka josten diona.

Bai. Idi-proben kontua nagusien arteko gauza da, eta nik umearen ikuspegitik kontatu dut, pixka bat alaiagoa izateko.

Zelan imajinatzen duzu egun hura Berrizen?

Desafioa garrantzitsua izango zen herrian. Orain beste ikuskizun batzuk daude, telebista daukagu, futbola, pilota partiduak... Zirkua bera gainbeheran dago. Nahiko kontu serioa izango zela imajinatzen dut. Apustuak eta diru kontuak tartean direnean...

Elefanteak galdu egin zuen. Askok egingo zuen bere alde apustu...

Irakurri dudanez, apustuak elefantearen alde zeuden. Jabeek animalien aurkezpena egin zuten hasi aurretik: zenbat kilo zuten, zenbat jaten zuten... Informazio hori garrantzitsua zen animaliek zelako indarra zuten jakiteko. Elefanteak idiek baino askoz gehiago jaten zuen eta datu hobeak zituen. Baina gero, probalekuan bueltak emateko arazoak izan zituen elefanteak, gelditu ere egin zen momentu batean, eta, gainera, ez zuen tiratzeko ohiturarik. Azkenean, idi pareak berrogeita hamar untze inguru egin zituen, eta elefanteak hamar bat.

Askok ordura arte ez zuen inoiz elefanterik ikusiko.

Herri honetan ez. 1963an zirkukoak ez ziren Berriz bezalako herri txiki batera etorriko. Zirkua, berez, Bilbora etorri zen, eta handik ekarri zuen Urzelai. Probalekuan 800 pertsona inguru batu ziren! Batzuk idiak ikustera, baina asko joango ziren elefantea ikustera.

Zineman ere parte hartu zuen Maryk.

Jabeak behintzat horrela esaten zuen, *Munduko ikuskizunik handiena* pelikulan parte hartu zuen, eta pelikula horrek Oscar saria irabazi zuen.

Eta Eduardo Urzelai, Berrizera ekarri.

Bai, edukiko zuen elefantearen berri, eta publizista ona zela dirudi. Askok mugitzen zen gauzak antolatzen.

Zeure lehenengo ipuina da hau?

Argitaratuta bakarra daukat, baina egin, egiten ditut. Gustatuko litzaidake ipuinekin jarraitzea.

Erakusketa egongo da otsailaren 14ra arte.

Bai. Bertan, ipuineko marrazkiak eta benetako argazkiak egongo dira. Egunkarietako kronikak ere badaude. Desafioak publizitate handia egin zion Berrizi. NO-DOan atera zen bideoa eta hori ere proiektatuko da erakusketan. Atea zabalik dago, oraindik badagoelako jendea Berrizen desafioa ikusi zuena eta datu gehiago eman dezakeena. Animalia hezitzailea, adibidez, ez da argazkietan agertzen eta nik kristoren bibotearekin irudikatatu dut.



Garapena

Akordatzen naiz, gaztetan, arbi soroak hori-hori, bizi-bizi, arbitza garatuta eta aita zenak arbiari indar guztia garrara joango zitzaiola eta behiek ez zutela jango esaten zuela.

Guretzat garatzea ez zen gauza ona. Ziklo natural baten amaiera edo azken pausoa zen. Hazia erein, erne, jorratu, zaindu. Landarea hazi, heldu eta fruitua eman. Aurrez ez bazen jaten, hazia batu beharko zen hurrengoan ereiteko.

Jendartean hasia zen ordu-rako garapen industrial, ekonomiararen funtzionamenduari hobekuntza kualitatibo, egonkor eta etengabea.

Industriak lur aberatsetan kokatu ziren; herriari, jendarteari eta naturari etekin gehien tarte motzengatik ateratzeko. Garapenaren ize-nean etekinei begiratu. Horretarako mugikortasuna erabili, natura eta jendartea erre eta ihes egin, natura eta bizitza zikloak eten. Garapena garatu.

Prozesua ez zen osotasunean neurtzen, hasieran zer eta zelan zegoen eta amaieran zer eta zelan utzi.

Gaur egun ere berdin darrari. Ekonomiak eta gobernuak dirudunentzat lanean dihardute; krisi garaian ere, dirudunentzat etekin gehien. Munduko laurogeita bost aberatsenek 3.600 milioi biztanlek adina diru daukate.

Garapenaren garaian pertsonaren eta taldearen orekak hobeto bideratuta daude Afrika edo Ameriketako jatorrizko herrien artean, mendebaldeko jendarte eskizofrenikoan baino. Eta harreman hobeak daukate naturarekin.

Ekologia eta bioaniztasuna hitzak hain onartuak diren garai honetan, zergatik ez dira aplikatzen dirua eta jendartearen gainean?

ZATOZ GURERA - INFORMA ZAITEZ

Q
Euskaradi

ISO 14001:2004
ISO 9001:2008

**EREDU HIRUELEDUNA
MODELO TRILINGÜE
TRILINGUAL EDUCATION**

Jesuitak
Durango

HAUR HEZKU
1 2 3

ORRI
12 13 14 15

ADINAK
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16-17

Kurutziaga, 1 - 3 P.K. DURANGO
Tel.: 946 810 050 Faxa: 946 810 304
sanjose@durangojesuitak.org